

Barrena

BURUKO OSASUNA

"Ez da ofizioa; lanarekin nuen harremanak gaixotu ninduen"

Bizipen pertsonaletan oinarritutako '7.300 miligramo eszitalopram' liburuak aurkezten izan da Iratxe Etxeberria kazetari ohia Deban / 2-3



'TTAP'

EUSKALGINTZA

25 urte bete ditu elgoibartarrak euskalduntzeko 'Tertuliak' mintzalagun programak / 7



Hondartzak prest uda denboraldirako

Debabarreko hondartzetan, izan Deban nahiz Mutrikun, bihar, ekainak 13, hasiko dute denboraldia; aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Sailak 1,7 milioi euroko laguntza emango die kostaldeko udalei, udan hondartzak kudeatzeko. / 24

Sorosleen postua eta toloak, prest. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

HERRI NORTASUNA

Plaza, AP-8 autobidearen obrek 70eko hamarkadan Mendaron bazter utzi zuten auzoa / 14-15



AITOR ETXEBERRIAREN BILDUMAKOA

PILOTA

Gaur jokatuko dituzte, Mallabian, Biharko Izarrak txapelketako bi finalak, 19:00etan hasita / 19



ENEKO LOPEZ

KANPAIAK

Andre Maria parrokiako kanpaiak isildu egin dituzte gauez Soraluzen, alkatetza-dekretuz / 20



ETORKIZUNEAN LANEAN

Ibilbidea zure esku

www.ehu.eus/ikasi



"Arte Ederrak ikasten ari naiz, jada nire etorkizuna marrazten"

Nextor Otaño, Muralgilea

"Lanak ezin du gure bizitzako beste atalek dutena baino espazio gehiago bete"

IRATXE ETXEBARRIA IDAZLEA ETA 'COACH' EMOZIONALA

'7.300 miligramo eszitalopram' liburuaren egilea Debako Kultur Elkartean izan da, argitalpena aurkezten eta bizi izandako esperientzia pertsonala partekatzen

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA Askotan, autoexijentziak, perfektionismoak eta eguneroko zurrunbiloak itsututa, geure burua alde batera uzten dugu lanaren zein bestelako arduen mesedetan, bizitzaren erritmoak muga-mugaraino eramaten gaituen arte. Horixe bera gertatu zitzaion Iratxe Etxebarria Etxebarria (Dima, 1979) kazetari ohiari. 2022an, neke profesionalaren sindromeak *–burnout* sindromea *–* jota *krak* egin zuen, eta sendatze-prozesu luze hartatik jaio zen *7.300 miligramo eszitalopram* liburu, 2024an.

Atzo, ekainak 11, Etxebarria Debako Kultur Elkartean izan zen, bizi izandako "negu luze eta ilun" haren lekukotza aurkezten, eta bertan haren esperientzia pertsonala irakurleekin partekatzeko aukera izan zuen. Hitzordu hori aitzakiatzat hartuta, prozesu pertsonalaz, muga emozionalak jartzearen beharraz eta gaur egungo lanaz aritu da BARRENA harekin. Horrekin batera, mezu itxaropentsu bat zabaldu nahi izan du: "Gaixotu egin nintzen, baina sendatu egin nintzen. Eta nik egin banuen, zuk ere egin dezakezu". Eta bide horretan daudenei laguntzeko gakoa ere gogorarazi digu: "Alboan egotea. Egotea. Askotan, ezer egin gabe. Eta, noski, gomendiorik eman gabe".

Atzo, Deban izan zinen, 7.300 miligramo eszitalopram liburu aurkezten. Zer moduzkoa ari da izaten irakurleekin aurrez aurre izaten ari zaren esperientzia?

Harrerarekin harrirituta eta pozik nago.

Eta zein mezu nagusi helarazi nahi duzu liburuarekin?

Mezua hauxe da: gaixotu egin nintzen, baina sendatu egin nintzen. Denbora behar izan nuen; agian, gehiegi. Baina nik egin

banuen, zuk ere egin dezakezu. Lanak ezin du gure bizitzako beste atalek dutena baino espazio gehiago bete.

Aurkeztera etorri zinen liburuaren izenburuak berehala erakartzen du irakurlearen arreta. Zergatik aukeratu zenuen titulu hori?

Dosi hori izan zelako behar izan nuena konturatzeko nequaren ostean udaberria zain neukala.

Botikak hartzea eta psikiatraren-gana joatea tabua da oraindik askorentzat. Liburuarekin helburuetako bat bazen errealitate hori naturaltasunez plazaratzea?

Bai, noski. Nire inguruak eta nire bizi-baldintzek ez ninduten, inola ere, psikiatraren kontsulta atarian kokatzen, baina...

Liburuan azaltzen duzu 2022an iritsi zela zure *krak* unea. Noiz hasi zinen sentitzen gorputza eta burua mugara iristen ari zirela?

Oporretan nengoela. Gelditu edo distantzia hartu nuenean, atsedenerako denbora hartu nuenean, nire gorputzak eta buruak ezin izan zuten erritmoa jaitsi. Eta orduan hasi nintzen konturatzen zerbait ez zegoela ondo.

Estresa eta neke profesionalaren sindromea gero eta ohikoagoak dira kazetaritzan. Atzera begiratu-ta, zerk eraman zintuen muturreko egoera hartara? Lanbideak berak ala lanarekin zenuen harremanak?

Nik ez dut uste kazetaritzak gaixotu ninduenik. Kazetaritzak, momentuz, nire bizitzako gauzarik ederrenak eman dizkit. Ez da ofizioa; nire kasuan, lanarekin nuen harremana izan zen: exijentzia-maila altutik, perfektionismotik, besteen beharrik asetzeko beharrian horretatik eta nire pribilegioengatik eskertuta egon behar horretatik sortu zen gaixotasuna.

Halako egoeran, bide profesionala eten eta baja hartu behar izan ze-

nuen. Zer izan zen bat-batean gelditu behar izatea?

Oso gogorra; beldurra, lotsa, errua... batu zitzaizkiolako ezagutzen ez nuen egoera zail bati. Zergatik uste duzu kostatzen zaigula hainbeste gure osasun mentalari behar duen lekua ematea eta geure buruari gelditzeko baimena ematea?

Beti prest, beti lanerako, beti besteen beharrik betetzeko egon behar dugulako... eta guretzat bost minutu hartzea egoista izatearekin lotu dugulako.

Liburuan oso zintzo hitz egiten duzu psikoterapiaz, pilulez eta psikiatraren laguntzaz. Zer eginkizun izan zuen bakoitzak zure errehabilitazioan?

Dena. Laguntza eskatu izan ez banu, ez nintzen sendatuko. Pilulek balio izan zidaten iluntasunari eusteko, psikoterapiak hain beteta nuen motxilaren pisua arintzeko... baina benetan balio izan zidana *coaching*-a izan zen. Arreta nire sendatze-prozesuan jarri nuelako, erabaki nuelako nola egin nahi nuen sendatzeko bidea eta zein helburu lortu nahi nuen.

Bide horretan guztian, zer ikasi duzu zeure buruaz eta zeure beharrik zaintzearen garrantziaz?

Ikasi dut autozaintza zer den. Ez dela egoista izatea. Nork bere burua zaintzeak esan nahi du loa errespetatzea, lan egitea baina atsedean ere hartzea, eta betebeharrak bezain garrantzitsua dela gustuko ditugun gauzak egiteko denbora hartzea.

"Beldurra, lotsa, errua... batu zitzaizkion ezagutzen ez nuen egoera zail bati"



Iratxe Etxebarria. ENERI ESTUDIO

Autozaintzarik gabe, ez dago ezer.

Askotan, ingurukoek ez dakite nola jokatu norbaitek *krak* egiten duenean. Zer behar da gehien une

horretan eta nola lagundu daiteke hobekien?

Alboan egotea. Egotea. Askotan, ezer egin gabe. Eta, noski, gomendiorik eman gabe. Babesa

Probidentzia Andra Mari ikastetxea
www.aldatze.eus

B eredua

aldatze

Eibar

943 70 11 50 / aldatze@aldatze.org

behar da, presentzia... ingurua duzula ikustea eta sentitzea.

Idazketa, esaterako, prozesu sendagarria izan zen zuretzat. Hasi-eratik izan zenuen liburu bat argitaratzeko asmoa ala barruko korapiloak askatzeko eta gertatutakoa ulertzeko tresna gisa hasi zen guztia?

Nik ez nuen idazten liburu bat argitaratzeko asmoz. Idazten nuen nire sentimenduak eta emozioak askatzeko... eta gero, ikusi nuen liburu bat izan zitekeela.

Oso esperientzia pertsonala kontatzen duzu liburuan. Gogorra izan da zeure burua hain modu publikoan biluztea eta bizitakoa berriz gogoratzea?

Bizi izandakoa gogoratzen dudan bakoitzean, oraindik ere malkoak ateratzen zaizkit.

Azken urteetan osasun mentalaz gehiago hitz egiten dela dirudi,

baina, zure ustez, benetan ematen ari zaio behar duen garrantzia?

Ez, ez zaio behar adinako garrantzirik ematen. Gaixotzen garenean hasten gara horretaz jabetzen, baina inbertsioa osasunean egin behar da.

Eta zer falta da gaia serioago hartzeko?

Behin gaixotuta, egin beharreko bidea oso gogorra da. Baina osasuntsu gaudenean ez gara konturatzen gaixotasunaren negu iluna zein hotza eta luzea den.

Esperientzia horrek zure bizitza pertsonala eta profesionala goitik behera aldatu ditu: irratia utzi, eta gaur egun coaching-ean eta neke profesionalaren sindromearen prebentzioan ari zara lanean. Zer eman dizu bide profesional berri horrek eta nola laguntzen dizu zure esperientziak besteak entzuteko orduan?

Ematen dit nik ikasitakoa beste batzuekin konpartitzeko aukera. Eta laguntzen dit neure buru-osasunean arreta jarrita aurrera jarraitzen. Eta hori ederra da.

Atzera begiratu, zer esango zenioke krisiaren unerik gogorrenean zegoen iratxe hari?

Iratxe hari esango nioke bizitza ikasketa-prozesua dela. Esango nioke bere buruan jartzeko arre-



Iratxe Etxebarria, 7.300 miligramo eszitalopram liburua eskuetan duela. ENERI ESTUDIO

ta, zaintzeko osasuna eta harremanak, baina beti norberarengandik hasita.

Eta, amaitzeko, zer aholku emango zenioke gaur egun "ezin dut gehiago" puntuan dagoen norbaiti?

"Ezin dut gehiago" pentsatzen duen pertsona horri esango nioke etortzeko nigana. Lagunduko diodala. Bere buruan eta bere osasunean inbertitzen duen inor ez dela damutzen. Ez da-

goela inbertsio errentagarriagorik. Bizitzeko gaudela, baina bizirik bizi behar dugula; hau dena eta bizi garen lekuan bizita, gozatzea besterik ez da goela.

"Ez gara konturatzen gaixotasunaren negu iluna zein hotza eta luzea den"

www.lagunkoia plaza.eus



lagunkoia

plaza

Gero eta adintsuagoa den gizartearen inguruko doako jarduerak adin guztietako pertsonentzat

Espero zaitugu!

EKAINAK 16-17 | **KURSAAL** aurrean













Joanes Iñurrieta, Ruben Irigoien eta Aitor Sagarmendi. JUAN FERNANDEZ

"Entzutea gustatzen zaigun estiloko musika egiten dugu"

JOANES IÑURRIETA

MUZAK TALDEKO ABESLARIA ETA GITARRA JOLEA

'Eta, hala ere...' diskoa kaleratu du Muzak taldeak, eta plataforma digital guztietan eskuragarri dago

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR

Joanes Iñurrieta –gitarra eta ahotsa–, Ruben Irigoien –bateria– eta Aitor Sagarmendi –baxua– dira Muzak taldeko kideak. Soraluzeko, Elgoibarko eta Mutrikuko musikariak dira, hurrenez hurren, eta, aurrelanetan lehenago hasi baziren ere, 2021ean kaleratu zuten lehen diskoa. Orain, bigarrena argitaratu dute: *Eta, hala ere...*

Noiz eta nola sortu zenuten Muzak taldea?

Ruben eta biok aspaldiko lagunak gara, eta elkarrekin entsea-

tzen hasi ginen, 2017. urte inguruan edo. Eibarren elkartzen ginen, Legarreko lokal batean. Gero, Elgoibarrera lekualdatu ginen, Pedro Mugarutzako eskolako lokaletara, eta talde bat sortzea erabaki genuen. Rubenek ezagutzen zuen Aitor Sagarmendi baxu jolea beste musika proiektu batzuetatik, eta hari aurkeztu zion esku artean geneukan proiektua. Baiezkoa eman zigun, eta 2021ean kaleratu genuen gure lehenengo lana, *Programaturik* izenburupean.

Eta orain, bigarrena kaleratu duzue.

Bai, hala da, baina bi disko horien artean ere kaleratu genituen hainbat lan: batetik, lau kantako EP bat atera genuen 2023an, *Irabaziak eta galerak* izenekoa, eta urte berean *Gezur mila* izeneko singlea ere argitaratu genuen. Abesti bat bakarrik atera genuen orduan, baina bideoklipa ere egin genuen. Ordituk hona, ez dugu ezer berririk kaleratu, orain arte. 2025ean sartu ginen grabazio-estudioan, eta dagoeneko kaleratu dugu gure bigarren diskoa, *Eta, hala ere...* izenekoa.

Zer adierazi nahi izan duzue izenburu horrekin?

Izenburua Rubenek eta Sagarrek pentsatu zuten, bereziki, eta esan nahi zutena zen zailtasun guztien gainetik jakin izan dugula aurrera egiten. Hitzetako batean ere esaten dut *eta hala ere, zutik nago hemen*. Hori da ideia nagusia, oztopoei aurre egin eta jaikitzen jakin dugula. Gureari eutsi diogula eta gurea egiten jarraitzen dugula adierazi nahi izan dugu.

Zein izan da bigarren diskoaren grabazio-prozesua?

Vigon (Galizia) grabatu genuen, iazko udan, Iago Lorenzo produktorearekin. Sagarrek ezagutzen zuen aurretik, eta pertsona egokia iruditu zitzaigun gure lan berrirako. Ez dauka estudio propiorik, baina zigilu handien-

tzako lan egindakoa da; oso profesionala. Gainera, egun batzuk kanpoan pasatu nahi genituen, hirurok bakarrik, taldeari denbora eskaintzen. Hamar bat egun pasatu genituen, abuztuan, Vigon. Hasieran, uste genuen rock izarren estilora pasatuko genituela egunak, baina, azkenean, lan pila bat egin behar izan genuen. Ordu pila bat sartu genituen estudioan. Goizean goiz jaiki, gosalduta eta estudioa joaten ginen, gauera arte. Egun libreren bat izan genuen, baina, bestela, lan eta lan jardun genuen. **Hamar kantako diskoa da. Zer nabarmenduko zenuke?**

Disko horretan desberdina izan da hitzak egiteko prozesua: normalean, nik idazten nituen abestiak, baina oraingoan hirurok idatzi ditugu. Musika sortzeko sistema betikoa erabili dugu: normalean, hirurotako batek eramaten du ideiarene bat lokalera, eta horren bueltan hasten gara kantua sortzen. Estudioa joan ginenerako, zortzi bat abesti nahiko itxita geneuzkan, baina azken biak han bertan bukatu genituen. Hain zuzen ere, kanta bati *In extremis* izena jarri genion; oso egokia iruditu zitzaidan izenburu hori. Esango nuke elkarlan gehien izan duen diskoa dela hau. Musika-ideiak ere lehen nik eramaten nituen gehienak, eta oraingoan Sagarrek ere ideia asko eraman ditu, eta haren ideietatik abiatu gara hainbat kanta sortzeko.

Zein estiloko musika egiten duzue?

Rock alternatiboa esaten dugu guk beti, baina hard rock estiloa egiten dugula ere esan daiteke. Disko berri horretan, bestalde, metal-ukituak ere badaude hainbat abestitan; metal esplizitua edo, esango nuke. Abestietan musika estilo aldaketak egiteko joera daukagu; hau da, suabe hasi gaitezke eta bat-batean zati heavyren bat sartzen dugu. Disko honetan zati potente horiek aurreko lanetan baino metal kutsu handiagoa dute. Askok gustatzen zaigu intentsitate-aldaketak sartzea. Oro har, guri entzutea gustatzen zaigun estiloko musika egiten dugu, eta guk estilo askotako musika entzuten dugu. Publikoari begira jartzen gara, baina, batez ere, guretzat sortzen dugu. Musika da gure zaletasuna, eta oso argi daukagu helburu nagusia gozatzeko dela. Publikoari gustatzea ere nahi dugu, jakina, baina ez dugu sortuko guri gustatzen ez

zaigun estiloko ezer arrakasta izan dezan. Ez gara musikatik bizi, hori ia ezinezkoa da gaur egun; beraz, ez daukagu musika komertziala sortzeko asmorik.

Zeri abestu diozue lan horretan?

Ez nuke esango diskoak gai bat daukanik; denetik abesten dugu. Kanta irekiak egin ditugu; norberaren interpretaziorako aukera ematen dutenak. Aitorrek, esaterako, barrura begirako kantak sortzeko joera dauka, eta norberaren barruko sentimenduei buruz idatzi du; ni, aldiz, gehiago naiz gizarteko gaiak lantzekoa... Gai asko eta askotarikoak landu ditugu. Kanta guztiak euskaraz dira, orain arte bezala; guk beti abestu izan dugu euskaraz.

Nolako harrera izan du diskoak?

Mutrikun estreinatu genuen diskoa, apirilean, Zubiaren tabernan, eta han jotzea etxean jotzea bezala izan zen. *Sagar* hangoa da, lagun asko ditugu eta harrera ona izan genuen. Gure esentziari eutsi diogu, gure identitatea mantendu dugu, eta publikoari gustatu zaiola esango nuke. Ez da erraza; izan ere, gaurko gazteek musika elektronikoa, reggaetona eta horrelakoak entzuten dituzte, baina guri hori ez zaigu gustatzen. Guretzat, musika terapia moduko bat da; lokalera joan eta entsetzen hasten garenean arazo guztiak hazten zaizkigu.

Sanbartolomeetan joko duzue Elgoibarren, Suneren aurretik. Plaza ona.

Bai, bai, oso ona! Orain dela hiru urte, Su Ta Garren aurretik jotzeko aukera izan genuen, eta, euria egin bazuen ere, oso ondo egon zen. Elgoibarko Udalak urtero ematen die aukera herriko taldeei jaietan jotzeko, eta hori eskertzekoa da. Orioko jaietan ere joko dugu, ekainaren 29an.

"Kanta guztiak euskaraz dira, orain arte bezala; guk beti sortzen dugu euskaraz"

"Elgoibarko Udalak urtero eskaintzen die herriko taldeei jaietan jotzeko aukera"

KAIXO, EUS NAIZ. EUSEBIO.



Eskuratu
●EUS domeinua
9 EUROAN.

EUSEBIO
PUNTU
●EUS

Erregistratzen laguntzeko,
eskatu hitzordua:
EUSEBIO.EUS



NIRE USTEZ

Umetako bideoak



ARKAITZ URANGA
ITZULTZAILEA

Duela pare bat urte, udalekuetan begirale ari nintzela, galdetu zidan ume batek: "Erakutsiko didazu zure umetako bideo bat?" Ume hark bere xalotasun eta naturaltasun osoarekin egin zidan galdera, kuriositateak bultzatuta, baina niri ume hark sekula imajina ez zezakeen marka utzi zidan. Pentsa: lerrook huskeria horretatik abiatuta idaztea bururatu zait, bi urte geroago.

Noski, nik, izan, baditut umetako bideoak, baina VHSetan daude, batek daki non pilatuta, hautsa hartzen. Izan ere, oraindik *gazte* kategorian sartzen banaiz ere, ni umea duela 20 urte izan nintzen. Eta uste dut ez dela atrebentzia handiegia esatea gizartea goitik behera aldatu dela azken 20 urteotan. Esate baterako, ume hura eta ni belaunaldi beraren atarkepean jarriko bagintuzte ere, umeak ez du jakingo zer den VHS bat, eta, ziur aski, erloju telefonodun bat darama eskumuturrean. Nik bere adina nuenean hori *Berebiziko espioiak* eta *Martin Mystery* telesailetan bakarrik ikus zenezakeen.

Gaur egun, gazteak –edo gazteok?– auzi askoren jomugan daude. Bizi ditugun garai gero eta ezegonkorrago hauei aurre egiteko erantzukizuna, askotan, gazteei egotzen zaie; dela esplizituki, dela inplizituki. Etorkizunera begiratzerakoan ezjakintasuna, segurtasun falta, eta aurreikuspenik eza elementu definitzaileak bilakatu diren honetan,

iruditzen zait jada *finkatuta* dauden belaunaldiek ezikusi egiten dietela hainbat konturi, eta lekukoa erabat eskualdatzen dutela, gazteei pasatzeko.

Nortzuk dira, baina, gazteak? Eta zergatik dute –dugu?– horrenbesteko erantzukizuna? Ulergarria da, bai, hainbat auzi eta gaietan gazteek hartzea agentzia eta beren erabakimena aldarrikatzea, baina, era berean, argudia daiteke egoerarik zaurgarrienean dagoen sektorea dela gazteena. Aldaketa sakonen, ezegonkortasunaren eta etengabeko berritasunen seme-alabak gara –orain bai, lehenengo pertsona–, eta askotan ezin gara identifikatu ezta gure belaunaldi-kideekin ere. Badugu nahikoa lan, bestela ere, *gizartearen salbatzaile* titulua hartzeko.

GUTUNAK

Mutrikuko biztanleen eskuzabaltasuna

MINBIZIAREN AURKA GIPUZKOAN
ELKARTEA MUTRIKU

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan Elkartek eskerrak eman nahi dizkie Mutrikun egindako urteko diru-bilketan parte hartu zuten guztiei, haien eskuzabaltasunagatik. Xedea izan zen gizarteak minbizia dutenei babesa ematea, ikertzaile, osasun-langile, boluntario, psikologo eta gizarte-langileekin konpromisoa hartzea eta ikerketa onkologikorako dirua biltzen laguntzea. Larunbatean bildutako guztizko zenbatekoa 1.779,05 eurokoa izan zen.

Hainbat boluntariok hartu zuten parte ekimen solidarioan, herrian zehar banatuta zeuden mahaietan. Era berean, urtero egindako ekimen horrek aukera ematen du herritarren artean elkarrearen presentzia handitzeko eta elkarrekin egunetik egunera pazienteen eta haien senideen onurarako egindako lana ezagutarazteko. Hortaz, boluntario guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, ekimen horretan eta beste batzuetan parte hartuz elkarrekin bultzatzen egiten duten lanagatik. Lortutako baliabideak ikerketa onkologikorako eta elkarrearen doako zerbitzuak sustatzeko erabiliko dira.

Gelditzen zarenean, minbiziaren aurka mugitzen gara lelopean, kanpainak keinu baten balioan jartzten du arreta, elkarrearen itsulapiko edo eskaera mahai baten aurrean gelditzean, keinu txikia dirudien

arren, ikerketa bultzatzeko, arreta hobetzeko eta itzaropena sortzeko gai den mugimendu kolektibo bat aktibatzen du. Diru bilketa horren bitartez lortutako funtsei esker, ikerketa onkologikoarekin lotutako proiektuen finantzaketa, pazienteak eta haien senideak artatzeko programa eta gaixotasunaren prebentziorako eta detekzio goiztiarreko kanpainen jarraipena bermatzen da. Era berean, elkarrekin eskaintzen dituen zerbitzuen doakotasuna mantentzeko ere ezinbestekoa da. Gainera, jardun horrek guztiak ahalbideratuko du elkarrekin helburu duen minbiziaren %70eko biziraupena lortzen.

Azkenik, egun hartan dohaintzarik egiteko aukerarik izan ez zuten herritarrei adierazi nahi diegu posible dela mihucha.contraelcancer.es/campaigns/hucha-gipuzkoa-ren bitartez egitea, nahi izanez gero.

Elgoibarko Udal Musika Banda eta Danborrada

ASION ELGOIBAR

Kalean marmar, kritika eta iritzi asko entzun ditudan arren, inork ez du ezer idatzi BARRENAN; beraz, nire gogoeta egingo dut. Elgoibarren oso zorte handia dugu, Musika Banda bikaina daukagulako. Herri askotan nahi lukete guk daukaguna eduki! Horrelako banda bat ez da bat-batean sortzen; zerkusi handia du herriaren musika-zaletasunak, Musika Eskolaren lanak eta kontzertuetara joaten diren jarraitzaile leial eta zintzoen kopuruak. Zaleek banda maite dute eta Musika Bandak herria

behar du. Zergatik ez zuen, bada, Musika Bandak danborradan parte hartu? Danborradan parte hartu zuten 200dik gora lagunek eta danborrada ikusten txaloka aritu ziren ehunka ikusleek ez dut uste horrelakorik merezi zutenik.

Segi dezagun saltoka!

ELGOIBAR IKASTOLA ELGOIBAR

Ikastola Eguna tarteko asteburu berezia bizi izan genuen Ikastolako kideok. Goizetik arratsalderainoko ekitaldiz bete genuen, lehenik, Ikastola, eta ondoren, herria. Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu kolaboratu zenuten guztioi: ikasle, familia eta lankide. Amaitzeko, zorionak komunitate osoari; Ikastolan sinisten jarraitzeko beste adibide bat izan zen astebukaerakoa. Gora gure Ikastola!

Laguntzaileak: El Gautxo, Garitaonandia farmazia, Bidezko Merkataritza, Rural Kutxa, Abanka, Sara, Eizagirre okindegia, Ziarda, Errotonda okindegia, Ipintza, Salento, CD Elgoibar, Agurtzane ile-apaindegia, Karkizano, Surya, Ikus optika, G&M jantzi-denda, Ecenarro, Ametsa, Zahatxu estrategia, Liburutegia, IMH, Txillarre, Bankoa, Garate, Pitxintxu, Sanlo, Barrutia optika, Luma ile-apaindegia, Farmazabal, Dislegi, Amagoia txutxe-denda, Iriondo Kirolak, Idama ile-apaindegia, Zazpi, Kaia, Jasone Osoro, Iruñe Arriola Farmazia, Castrillejo estankoa, Kiroldegia –kirolpatronatua–, Astigarraga Gys Sport, Barrenetxea-Etxeberria farmazia, Deuko Izarra, Zu Gehi Ni, Magi bitxiak, Kala loradenda eta Armueta harategia.

Barrena[®]

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria

Gaizka Azkarate.

Zuzendari nagusia

Egoitz Unamuno.

Eduki arduraduna

Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.

Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.

Diseinu arduraduna

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kidetzatzaileak

Alex Turrillas.

Maketaziora

Zalora Arnaiz, Oier Larreategi.

Publizitatea

Leire Rubio.

HARPIDETZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA

Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA

Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.500 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAN ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOA
Foru Aldundia



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Tertuliakideak, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, 2021-2022ko ikasturteko amaiera-jaietan. 'BARREN' ASTEKARIA

'Tertuliak' programaren 25. urteurrena ospatuko dute

Ekainaren 18an izango da ospakizun-jaiak, Aita Agirre kulturgunean, arratsaldeko zazpietan hasita, eta 'Tertuliak' programan parte hartu duten herritar guztiak daude gonbidatuta

Ainhoa Andonegi

Asko eman dio *Tertuliak* programak Elgoibarko euskalgintzari, jende asko da euskaldunagoa hari esker, eta horregatik ospatu nahi dute eragileek 25. urteurrena, programan parte hartu duten guztiarekin batera. Tertuliakideek egindakoari balioa eman nahi diote, eta egindakoagatik eskerrak emango dizkiete.

Ospakizun xume baina benetakoa izango dela adierazi du Imanol Larrañagak, Elgoibarko Izarrako dinamizatzaileak. *Tertuliak* programari buruzko

bideo bat sortu dute, eta ospakizun-jaietan ikusiko da ikus-entzunezko hori, estreinakoz. "Erregalutxoren bat ere egongo da tertuliakide izan direnentzat, eta kantu-giroan amaituko dugu urteurren-jaiak", gaineratu du.

Elgoibarren jende asko da euskaldunagoa 'Tertuliak' programari esker

2001ean jarri zuten martxan *Tertuliak* programa. Helburua argia zen: euskaraz jarduteko erraztasunik edo aukerarik ez zutenei euskaraz berba egiteko eta euskara entzuteko aukera eskaintzea. Hala ekin zioten 2001ean, eta urtero-urtero izaten dira 35-40 lagun inguru parte hartzen. Izena edozeinek eman dezake, doan, baina parte hartu nahi duenak ulertu egin behar du euskara, eta berba egiteko gutxieneko maila ere eskatzen zaie. Izan ere, jendeak euskara erabiltzea da programaren arrazoia, bako-

tzaren euskara-gaitasuna edozein dela ere. Dakitena praktikan jarri eta ez dakitena ikastea da helburua. Astean ordu-betez euskaraz berba egiteko guneak eta kideak eskaintzen zaizkie izena ematen dutenei (*bidelariak*). Bospasei laguneko taldeak antolatzen dira, eta talde bakoitzean euskaraz ondo moldatzen den lagun bat dago (*bidelaguna*). Hark dinamizatzen du taldea.

Taldeak astean behin biltzen dira, bakoitzak nahi duen egun eta ordutegian, eta berbetan jarduteko modua ere talde bakoitzak erabakitzen du: gehienek kafe edo mahai baten bueltan jarduten dute tertulian, baina badira oinezko joan-etorrian ibiltzen dutenak ere.

Programak ikasturteko funtzionatzen du, irailean hasi eta ekainera arte, eta, batez beste, talde bakoitzak 35 ordu inguru ematen ditu euskaraz egin eta euskara entzuten.

Elgoibarko Izarrak dinamizatzen ditu *Tertuliak* saioak, Udalaren, AEK euskaltegiaren eta Udal Euskaltegiaren babesarekin eta lankidetzarekin.

Hasierako urteak



AMAIA ARRIZABALAGA
'TERTULIAK' PROGRAMAREN LEHENENGO KOORDINATZAILEA

"Euskaltegiaren zibilizazioa jendearekin euskaraz egiteko espazioak eskaintzen hasi ginen, *Arigera* programaren barruan, baina ez genuen ekintzekin asmatzen. Ordurako hasita zeuden Donostiako Bagera elkarteok Mintzalagun programarekin, eta hango koordinatzaileak esan zigun oso ondo funtzionatzen zuela. Elgoibar herri txikia izanik, zalantzak izan genituen, baina probatzea erabaki genuen. Euskaltegiaren ikasleei eman genien parte hartzeko aukera, eta neu izan nintzen talde guztietako euskaldun zaharra edo gaur egungo bidelaguna. Makina bat kafe hartu nuen hasiera hartan! Jendea gustura etortzen zen; azken batean, astean ordu-betez kafe baten bueltan biltzeak ez ziren lan handirik eskatzen. Programak eman ditu fruituak, eta poza ematen dit duela 25 urte izena eman zuten haiek euskaraz entzuteak. Elgoibar euskaldunagoa da haiei esker, eta txalotzekoa da jende horrek egin duen ahalegina".

TERTULIAK:

25. urteurrena ospatzera goaz!

Ekainak 18, osteguna - 19:00 - Aita Agirre kulturgunean

Gonbidatuta zaudete 25 urteotan TERTULIAK programan parte hartu duzuen guztiok!

"Nire onena eman diot Sanlori, eta gustura noa egindakoarekin"

IÑIGO MUGERTZA ALCORTAKO ATEZAINA

Sanloko kategoria guztietatik pasatu ondoren, Alcorta taldean egin ditu azken urteak, eta erretiroa hartu du orain Iñigo Mugertzak

Ainhoa Andonegi

Umetan hasi zen Iñigo Mugertzak eskubaloian jokatzeko, eta mailaz maila iritsi da gizonezkoen senior talderaino. Dena emanda doa; egindako lanarekin, pozik.

Noiz eta nola hasi zinen eskubaloian jokatzeko?

Eskola kirolean genbiltzan, eta kuadrillakoei eskubaloia gustatu zitzaigun. Askok eman genuen izena Sanlon, 10-11 urte genituela. Batzuk futboleko hasi ziren, eta nik ere probatu nuen, baina konturatu nintzen eskubaloia gehiago gustatzen zitzaidala. Dinamikoagoa eta dibertigarriagoa da. Hasieratik jokatu izan dut atezain. Presio handiko postua da, eta nik neuk presio handiko partidetan gozatzen dut gehien. Partida lasaietan ez dut horrenbeste gozatzen.

Erretiroa hartuko duzu, eta Kopa irabazita, gainera. Imajinatzen al zenuen horrelakoa izango zela zure azkenekoa?

Inondik inora ere. Gipuzkoako Kopako finala etxean jokatu genuen, eta irabazi egin genuen. Izugarria izan zen. Sanloren omenaldia ere ez nuen espero. Iaz erretiratzeko asmoa neukan,

baina lesionatuta egon nintzen eta ez nintzen gustura geratu denboraldiarekin. Urtebete gehiago egitea erabaki nuen, eta aurretik bai, aurretik gustura erretiratuko naiz. Taldearekin eta neure buruarekin ere oso gustura aritu naiz. Orain, atsedean hartuko dut, deskonektatzeko beharra daukat. Hala ere, ez naiz urrutira joango, eta laguntzeko prest egongo naiz.

Zer da Sanlo zuretzat?

Familia bat da. Sekulako giroa daukagu gure artean, lagunak gara denok. Nire ustez, *elkartasuna* da Sanlo definitzen duen hitza, dena elkarlanean egiten dugu eta jende asko dago inplikaturik klubean. Ama baino gehiago ikusten ditut taldekideak! Egunerokotik irteteko modua da eskubaloia, arazoei buelta ematen laguntzen dit.

Zein balorazio egiten duzu zure ibilbideari buruz?

"Orain, atsedean hartuko dut; deskonektatzeko beharra daukat"

Egindako lanarekin gustura nago; nire onena eman diot Sanlori, baina iritsi da lagatzeko ordua. Atzetik jende gazte asko dator, eta haiei eman behar zaie lekukoa. Nik eman dut eman behar nuena.

17 urteotan entrenatzaile asko eza-gutuko zenituen. Arrastoa utzi dizun inor?

Asko izan dira onak, baina, bat aipatzekotan, Vucci. Ume gine-la hartu gintuen, eta hark hezi gaitu. Azken partidaren ere harekin gogoratu nintzen. Zigorrekin [Esnaola] ere oso gustura egon naiz, egia esan, harreman oso ona izan dugu, baina urte gehienak Vuccirekin egin nituen.

Nola ikusten duzu eskubaloia Elgoibarren?

Oso ondo. Jende pila bat ikusten da Sanloko motxilekin eta jantziekin, eta hori polita da. Futboleko orain badaude nesken taldeak, baina Sanlok asko egin du nesken kirolaren alde. Mutiletan futbolak indar handiagoa dauka oraindik, baina esango nuke ari dela orekatzen. Eskubaloiak harrera oso ona dauka, eta kiroldegian sortzen den giroa sekulakoa da.



Mugertza, Olaizaga kiroldegian. LAGATAKOA



Iñigo Mugertza, emozioarekin. LAGATAKOA



Tchin Tchin
UDARA

**BI BETAURREKO GEHIAGO
EURO BAT GEHIAGO
ORDAINDUTA***
**ETA HIRUGARREN BAT
ZURETZAT EDO OPARITZEKO**

*Kuiak baldintzak optikan edo afflelou.es helbidean. Eskaintza horiek 2025/06/29tik 2025/08/31ra arte baliatu daitezke. Espatriotiko eta Andorako Alain Afflelou optiketan. 1/25 enregistrazio-erabokita.

ALAIN AFFLELOU

Eskatu txanda
afflelou.es



**SAN BARTOLOME KALEA, 10
ELGOIBAR • 943 74 37 34**

8.750 euroko dirulaguntza emango dio Udalak Jubilatuen Biltokiari

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak lankidetzeta-hitzarmena sinatu du Udalarekin, eta, horri esker, 8.750 euroko dirulaguntza jasoko du 2026an zehar zahartze aktiboa sustatzeko. Jubilatuen eta pentsiodunen biltokiak adinekoak elkartzeko zentro publikoak dira, eta udalerriko erretiratuen eta pentsiodunen bizikidetzeta, elkartasuna, elkarrekin laguntza eta parte-hartzea sustatzea dute helburu. Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak elkarlanean dihardute egoera zaurgarrian dauden edo egon daitezkeen adinekoen beharrak aurreikusteko. Izan ere, Udaleko ordezkariak esan dutenez, gizarte zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko lagungarriak dira Jubilatuen Biltokiak egiten dituen ekintzak.



Udaleko ordezkariak, Biltokiko zuzendaritzakoekin. UDALA

San Pedroko bi eraikin enkantean atera ditu Udalak, berreraikitzeko



Lehen solairurik eta estalkirik gabe saltzen dira eraikinak. ASIER ORBEA

A.A.

Elgoibarko Udalak enkante publikora atera ditu San Pedro kaleko 5. eta 6. zenbakietan dauden bi finka. Biak batera salduko dira, kargarik gabe, eta eraikinak berreraikitzeko betebeharra izango du. Lizitazioaren gutxieneko prezioa

41.563,14 eurokoa izango da eta enkantean parte hartzeko 2.078 euroko behin-behineko bermea jarri behar da. Interesatuak uztailaren 15erako aurkeztu beharko dituzte eskaintzak. Informazio gehiagorako, Herri-tarren Arreta Zerbitzura jo daiteke (943 74 10 50).

Plazara eraman dituzte euskal dantzak

Joan den astean egin zuten dantza jaialdia Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleek

Ainhoa Andonegi

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleek joan den barikuan egin zuten ikasturte amaierako jaialdia, Kalegoen plazan. Mailaka taldekatuta irten ziren ikasleak plazara, eta Eus-

kal Herriko probintzietako piezak dantzatu zituzten. Urte osoan egindako lanaren erakusgarri izan zen jaialdia. Amaieran, Haritz euskal dantzari taldekoek ere parte hartu zuten. Dantza eta kolorez bete zuten plaza.



Dantza eskolako ikasleak, Bolatokian. AINHOA ANDONEGI

Batzoki
Asteburuetako menuak,
plater konbinatuak...
Plaza Zaharra (Soraluze) Erreserbak: 638 91 15 97

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

EXPRESS ESKAINTZAK!
COMBI SAMSUNG RB24C705CS9NF HOZKAILUA
699 €
● No Frost
● Hozte inguratzailea
● Altuera: 185,3 cm
● 344 litro
● Humidity Fresh + kaxoia
● Optimal Fresh + kaxoia
● Hatz marken kontrako altzairua
MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
Jarri ezazu zure publikitatea
BARRENA astekean
edo
www.barrena.eus 943 743 704
webgunean 688 769 657

ENGLISH SQUARE
SCHOOL OF ENGLISH
Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206 • info@english-square.net
Ikastaro trinkoak ekainean eta uztailean
DBH eta batxilergoa maila guztiak
First eta Advanced tituluak

NIRE USTEZ

Gaztien Eguna**ALAITZ ALMORZA**
IRAKASLEA

Kurtso amaierak dakarren anabasaren erdian, hautsak harrotu dituen gai batek zalaparta sortu du gazteon artean. Sanbartolomeetako Gaztien Eguneko bazkariak zeresan handia eman du edukiera murrizteko hartutako erabakiagatik. Joan den asteko BARRENA Ikerrek gai honi heldu zion, eta erantzuteko hain erraza ez den galdera egin zien irakurleei: *Gazte Eguna, zertarako?* Nik ere zer pentsatu izan dut honen harira.

Hala ere, erantzunak bilatzen hasi aurretik, beste galdera bat erantzun beharra dagoela uste dut: zer da Gaztien Eguna?

Inguruan galdetuz gero seguru nago definizio ezberdin asko aurkituko nituzkeela; parte-hartzaile adina, akaso. Pentsatzen dut haietako asko egun honen hasierako urteetako definiziotik asko urrunduko direla; beste batzuk, aldiz, ez hainbeste. Dena dela, argi dagoena da bazkariaren definizioan politikari lotutako ideiak gero eta urriagoak direla.

Aurreko asteko iritzian, bazkaria despolitizatuta

"Orokorrean, ongi pasatzeko helburuarekin doa jendea bazkarira, bestelako borrokak edota helburuak alde batera utzita"

dagoela aipatzen zuen Ikerrek. Nik neuk ere halaxe uste dut. Orokorrean, ongi pasatzeko helburuarekin doa jendea bazkarira, bestelako borrokak edota helburuak alde batera utzita. Arrazoi ezberdinak medio, egunaren nortasuna ezkatututa geratu dela iruditzen zait. Haatik, naturalki gertatu den zerbait dela pentsatzen dut, parte-hartzaileon araberakoa baita egunaren izaera ere, azken finean.

Nire ustez, edukierak sortu duen arazo hau aukera gisa ulertu behar da. Bada ordua egun honen bilakaeraren inguruan hausnartzeko eta egunari zein norabide ematea nahi diogun erabakitzeko. Ni ere, ziur aski, elkarrizketa horretara batuko naiz ogi eta sagardo artean filosofatzera, ea galderen erantzunak aurkitzen ditugun.

KLIK

Argiak distira iluntasunean**JOSE RAMON CABRERA**
ARGAZKILARIA

Argazki hau Morutik atera dago, gau izartsu batean. Denbora eta pazientzia handiarekin, ikus dezakezu zein hutsalak garen. Dena ikus dezakezu eta, hala ere, ez da ezer bereizten. Hori da gauzak goitik begiratzearen edertasuna; konturatzen gara zein txikiak garen, eta, aldi berean, zein zabalak. Espero dut argazki honek adibide gisa balio izatea.



SEMAFORO

Zakarrak, zakarrontzira

"IMH aurreko berdegunean mahaia jartzea ideia ona izan zen, eta leku aproposa iruditzen zait jendea bertan biltzeko. Hala ere, erabiltzen dutenei eskatu nahi nieke ingurunea zaintzeko, mesedez. Dena zikinkeriaz beteta lagatzen dute, eta hori ez da bidezkoa. Herria txukun eta garbi mantentzea ere bada gure betebeharra".

Zulo handiegia

"San Rokera doan bidean, barandaren beheko aldean tarte handiegia dago. Aurrekoan, txakurrarekin nindoan, eta ia erori egin zitzaidan trenbidera. Katearekin lotuta neraman, eta eskerrak! Zintzilik geratu zen. Barandaren beheko aldean babesguneak jarri daitezke, beste leku batzuetan bezala. Modu horretan, arriskua gutxitu egingo litzateke, eta, gainera, zakarrak ez lirateke trenbidera eroriko".

Errespetatu ezinduen aparkalekuak

"Jende askok benetakoak ez diren elbarrien txartelak erabiltzen ditu ezinduentzako gordeta dauden aparkalekuan aparkatzeko. Gertatu izan zait behin baino gehiagotan horrelakoak ikustea. Gurasoen ezindu-txartela jartzen dute autoan, baina haiek inolako ezgaitasunik ez daukate. Benetan toki horiek behar ditugunekiko begirune pixka bat eskatu nahi nuke. Eskerrik asko".

Sorotan Bele taldearekin emango du kontzertua Udal Musika Bandak, gaur

Kalegoen plazan izango da emanaldia, 22:30ean hasita

Ainhoa Andonegi

Ohiko saioetatik aldentzen diren kontzertu berezi eta desberdinak antolatzeari ekin zion Elgoibarko Udal Musika Bandak 2016an; besteak beste, bandaren kontzertuetara publiko berria eta gazteagoa erakartzeko asmoarekin. Harrezkero, urtero eman dute kontzertu berezi hori, eta askotariko musikekin uztartu dute bandako musika. Elgoibarren izan dira, besteak beste, gospel taldeak eta Celtas Cortos eta Serafin Zubiri musikari handiak, eta aurten Sorotan Bele talde ezaguna gonbidatu dute. Taldeko lau kide arituko dira bandarekin: Gorka Sarriegi abeslaria, Urbil Artola gitarrista, Ritxi Salaberria baxu jolea eta Aitor Etxaniz bateria jolea. 2021ean estreinatu zuten *Sorotan Bele gogoan* emanaldia, eta, orduz geroztik, makina bat herritan

aritu dira. Elgoibarrera gaur iritsiko dira. 22:30ean izango da kontzertua, Kalegoen plazan.

Folk doinuak

Euskal Herriak izan duen folk-pop talderik ezagunenetakoa da

Sorotan Bele. 1992an sortu zuten Hondarribiko eta Lezoko zazpi gaztek, eta lau urtean hiru disko argitaratu zituzten. Hain zuzen ere, disko haietan jasotako abesti ezagunenak ekarriko dituzte gaur gogora.



Sorotan Bele, Lazkaoko bandarekin. AIMAR MAIZ

Txankakuaren udaberriko ginkanaren irabazleek jaso dituzten beren sariak

A.A.

Udaberriko ginkana antolatu du Txankakuak herriko merkataritza sustatzeko, eta txartela osatu duten bezeroen artean 5.000 euro zozkatu ditu. 500 euroko bi sari eta 200 euroko hogeitazozkatu dituzte, eta dagoeneko banatu dituzte sariak. Mari Fran

Arrillagak eta Itziar Garciak 500 euroko sari bana eskuratu dute erosketa-bonutan, eta gainerakoek 200 euroko bonua jaso dute. Hauek izan dira gainerako saridunak: Maria Ixabel Lariz, Manuel Bote Ramos, Nuria Estarta, Roxana Vaca, Silvia Medeiro, Maria Jesus Kortaberria,

Mari Tere Gil Unamunzaga, Ruper Kerexeta, Bego Madariaga, Carol Boyer, Garazi Arriola, Paqui Gonzalez, Nagore Lada San Jose, Isabel Vazquez, Encarna Gonzalez, Itziar Astorkia, Natalia Gil Rubio, Maite Zabala, Mari Jose Estibaritz eta Adelaida Astigarraga.



Sarituak, Txankakuako ordezkariekin. TXANKAKUA

Bihar, larunbata, zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak

A.A.

Bihar hasiko dute denboraldia Mintxetan, festa giroan: 10:00etan, akuatloia egingo dute, Elgoibar Igeriketa Taldekoek antolatuta; 12:00etatik 14:00etara, DJ Titaren musika saioa izango da; eta arratsaldean, 17:00etatik 18:00etara, kaleko dantzen erakustaldia egingo dute.



lazko irudi bat. A.O.

Denboraldiko prezioak

Banakako abonua 111,75 euro balio du -18 urtez azpikoe, 100,90 euro-; familia-abonua 223,50 euro balio du eta familia gurasobakarrarenak, 156,45. Jubilatuek 102 euroan dute abonua -familiek, 185,55 euro-

. Ikasleentzako abonua 100 eurokoa da, eta behar bereziak dituztenentzako, 100,90 eurokoa. Eguneko sarrerak 6,50 euro balio du -18 urtetik behar-koek, 4,50-

Sanbartolomeetako kartel lehiaketa antolatu du Udalak

A.A.

Sanbartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko irudi lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak. Parte hartu ahal izateko, 18 urte beteta izan behar dira. Teknika librea izango da, baina ezinbestean agertu behar du testu honek: *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2026*. Partaide bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu, gehiezin, eta argitaratu gabekoak izan behar dute. Antolatzailerik esan dute ez dutela onartuko adimen artifizialarekin egindako lanik.

Sariak eta epeak

Irabazleentzako sari bakarra egongo da, 800 eurokoa. Lanak Aita Agirre kulturagunean aurkeztu beharko dira, Kultura Sailean, ekainaren 19rako, 13:00ak aurretik. Egilearen sinadurarik gabe aurkeztu beharko dira, atzeko aldean *Leloa* jarrita. Horrekin batera, gutun-azal itxi batean parte-hartzailearen datu pertsonalak eta nortasun agiriaren kopia entregatu beharko dira, eta gutun-azalaren gainean, berriz, lanaren *Leloa*. Informazio gehiago jasotzeko Udaleko Kultura Sailera jo daiteke: 943 74 21 45.

Arreiturre Institutuaren 50. urteurrena

Elgoibarko Arreiturre Institutuak 50 urte beteko ditu aurten, eta zuzendaritzak ospakizun-ekitaldia antolatzen dihardu. 50 urte hauetan (1976-2026) ikastetxeko kide izan diren irakasle, guraso zein ikasle guztiak zuzenean gonbitatu ezin dituztenez, ohar honen bidez egin dute gonbidapena: 2026ko urriaren 23an, goizeko hamaiketan, Elgoibarko Herriko Antzokian izango dute ospakizun-ekitaldia, eta



Elgoibar BHI. UTZITAKOA

den-denak gonbidatu dituzte. Harremanetan jartzeko, helbide honetara idatz daiteke: idezakaria@elgoibarbhi.eus

200dik gora lagunek egin dute bost funtzionario postu betetzeko azterketa

Gizarte langile bat eta lau administrari kontratatuko ditu Udalak

Ainhoa Andonegi

Gizarte langile bat eta lau administrari kontratatzeko deialdi publikoa egin zuen Elgoibarko Udalak, eta aste honetan izan dira azterketak, IMHko kiroldegiko kantxan. 200dik gora lagunek hartu dute parte hautaketa prozesuan; zehazki, 103 pertsonak egin dute gizarte langile postua betetzeko proba eta, aldiz, lau administrari postu betetzeko deialdiko azterketan 122 hautagaik hartu dute parte. Udalak jakinarazi duenez, azterketen behin-behineko emaitzak datozen egunetan argitaratuko dituzte Elgoibarko Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan.



Azterketarako hautagaiak, IMHn. UDALA

Bost lanpostu publiko horien deialdia eginda, enplegu publikoa egonkortu, udal-zerbitzuak in-

dartu eta herritar guztiei kalitatezko arreta eraginkorra bermatzen zaiela adierazi du Udalak.

Ane Arte Tailerreko ikasleen lanak ikusgai daude Kultur Kafean



Ikasleak, margo-eskolan. A. SAN MARTIN

A.A.

Ane Arte Tailerreko ikasleek ikasturtean zehar eginiko lanekin erakusketa ondu du Ane San Martinek. Hainbat teknika eta formatutan eginiko lanak jarri dituzte ikusgai Kultur Kafean, eta hilaren 17ra arte egongo da zabalik erakusketa.

Adin askotariko ikasleek eginiko lanak dira. 77 koadro daude guztira, eta hamar eskulan. Erakusketak irauten duen bitartean, Kultur Kafean bertan emango ditu San Martinek margo-eskolak, eta nahi duen orok zuzenean ikusi dezake ikasleek egiten duten lana.

Zapore Gorenaren saria jaso du Altzolako urak, iturburuaren 250. urteurrenean

Zaporearen eta Kalitatearen Bruselako Institutuak banatzen ditu sariak; hiru izar eskuratu ditu Altzolako urak

A.A.

Zaporearen eta Kalitatearen Bruselako Institutuak munduko elikagaien eta edarien zaporea neurtu eta ziurtatzen du urtero, Superior Taste Award sarieran. Aurten, Altzolako Urak enpresak ere hartu du parte sariketan, eta, hiru izarrekin, Zapore Gorenaren saria irabazi du. Hogei herrialde baino gehiagoko 200 adituk osatu dute epaimahaia, eta Altzolako urak %90,8ko puntuazio orokorra jaso zuen: %92koa lehen begiratu azterketan eta %93,9koa itxuran –gardentasuna eta distira–. Horiez gain, usaimenean %89,5, zaporean %88,2 eta ura edan ostean lagatzen duen sententzia ebaluatzerakoan, %86,4.

250 urte

1776an aurkitu zuten Altzolako uren iturburuak; duela 250 urte, alegia. Negu gorria zen, eta ume batzuk, Deba ibaian bainua hartzen ari zirela, gune konkretu batean ur beroa irtetzen zela kon-

turatu ziren. Espeleologoen eta zientzialariek egindako ikerketen arabera, iturburuak duen altueratik gertatzen da hori. Altzolako uren jatorria Izarraitz mendigunean dago, itsas mailatik mila metroko altueran eta itsasotik hamabi kilometrorra, eta 25 bat urteko bidaia egiten du ur horrek lurpean, Altzolara iritsi arte. Kareharrizko harkaitzek iragazki natural gisa funtzionatzen dute, eta, adituen arabera, horrek ematen dio urari kalitatea.

1801ean, mediku propioa zukan Europako lehenengo bainuetxea zabaldu zuten Altzolan. 1846an, Urberoaga bainuetxea inauguratu zuten, eta 1901ean zabaldu zituen ateak Gran Hotel Balneario hotelak. Bainuetxea izan zen urteetan herriaren motor ekonomikoa, eta garai batean hamaika hotel izan ziren Altzolan. 1976an itxi zuten bainuetxea, eta ura botilaratzeko instalazioak jarri zituzten bertan. Gaur egun, Alzola Basque Water izena dauka enpresak.

Azkarateko errepidea berritzeko lanak uda hasieran abiaraziko dituzte

Miloi bat euro pasatxoko inbertsioa egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkarateko errepide zaharrean

A.A.

Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako eta Lurralde Estrategiako Departamentuak dagoeneko planifikatuta eta abian ditu GI-3321 errepideko hiru puntu egonkortzeko jarduketak, Azkarateko errepide zaharrean. Miloi bat euro inguruko inbertsioa aurreikusitako horietarako. Ondo bidean, uda hasieran ekingo diote lanari, eta urte amaierarako amaitzea espero dute. Helburua da hainbat zatitan lurraren ezegonkortasun-arazoak konpontzea eta bidearen segurtasuna indartzea. Elgoibar eta Azkoitia Azkarateko gainetik lotzen dituen GI-3321 errepideak hondoratzeak eta lur-mugimenduak ditu zenbait puntutan; puntu horietan jarduketak zehatza behar da, azpiegitura sendotu eta bide-segurtasuneko baldintza egokiak bermatzeko.

Lanak, bi zatitan

Lehen ekinaldian 2+100 eta 3+200 kilometro-puntuen arteko bi tar-



Felix Urkola –Bide Azpiegiturarako eta Lurralde Estrategiako diputatua–, Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkatearekin eta Ion Zubiaurre zinegotziarekin. UDALA

tetan esku hartuko dute. 692.679,17 euroko aurrekontua izango du egiteko horrek, eta lau hilabete epean egingo dute. Halaber, beste esku-hartze bat ere aurreikusten da errepide horren beste puntu batean: 4+380 eta 4+640 kilometro artean, 300.000 euro inguruko aurrekontuarekin.

Aurrematrikula zabalik AEK euskaltegian

Elgoibarko AEK euskaltegiak datorren ikasturterako aurrematrikulazio epea zabaldu du, eta ekainean zehar egongo da bertan izena emateko aukera. Jakinarazi dutenez, aurtengo ikastaroen prezioei eutsiko diete datorren kursoan ere, eta, horrez gainera, Eusko Jaurlaritzak onartu duen euskara ikasteko bonuari esker, dirulaguntza gehiago izango dituzte herritarrek; bai hasierako mailatan jardungo dutenek, baita 16-18 urte bitarteko gazteek ere, C1 mailako azterketa –lehenengo EGA– presta dezaten. AEK-ko arduradunek azaldu dute ikasturte berrirako taldeak osatzeko orduan lehentasuna izango dutela aurrematrikula egiten dutenek.

Harremanetarako

Hori egiteko edota informazio gehiago jasotzeko, AEK euskaltegiara jo daiteke (Gabriel Kurutzelaegi kalea 10, behea). Posta elektronikoz (elgoibar@ae.eus) edo telefonoz (607 601 423) ere jarri daiteke harremanetan euskaltegiekin.

Petanka-zaleek jolasleku berria estreinatu dute

Petankan aritzeko jolaslekua eraiki dute Toletxe kaleko 8. zenbakiaren atzean dagoen plazan, eta petanka-zaleek estreinatu dute jada. Herriko jubilatuek eginiko proposamena bete du Udalak, baina gogora ekarri dute adin guztietako herritarrek erabili dezaketela petankan aritzeko pista berria. Jokorako moduan dagoen arren, lan guztiak amaitzeke daude oraindik, markagailu bat eta materiala gordezko armairu bat ere jarriko baitituzte. Obraren aurrekontua 5.650 eurokoa izan da –gehi BEZa–.



ASIER ORBEA

Ander Treviñok entrenatuko du Haundi

Denboraldia amaitzeko, urteko batzarra egitea eta paella-jan baten bueltan batzea falta zaie CD Elgoibarko lagunei, baina dagoeneko hasiak dira hurrengo denboraldirako prestatzen. 2026-2027ko denboraldian gizonzkoen Haundi taldeko entrenatzailea izango dena aurkeztu du klubak: Ander Treviño (Eibar, 1985). Borja Rocha ordezkatzeko du aulkitxoan, azken bi denboraldiak entrenatzaile karguan egin dituen azkoitia-rra.

41 urteko entrenatzaile berriak badu eskarmentua zeregin horietan, ia hogeitun aritu baita taldeak entrenatzen: 14 urte egin zituen Urkomendin

eta beste bost urte eta erdi beste bi taldetan; hain justu ere, Eibarren eta Zumaiakon.

Batzar nagusia, hilaren 18an, eta bazkaria, hilaren 20an

Bestalde, CD Elgoibar kirol elkarteak urteko batzar nagusira deitu ditu bazkideak ekainaren 18rako. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako auditoriumean izango da: 18:30ean lehen deialdia eta 19:00etan bigarrena.

Paella-jan baten bueltan agurtuko du denboraldia CD Elgoibarrek, ekainaren 20an. Azken urteetan bazkaria Sigmako aparkalekuan egin izan badute ere, aurtengoa Maalako parkean



Ander Treviño eta Ander Muguerza.

egingo dute. Bazkarirako txartelak Jai-Alai eta Kaia tabernetan eskuratu daitezke, eta horretarako azken eguna ekainaren 13a izango da.



Mendi lasterkariak lehiarako aukera izango dute Urruzunon. M. ASKASIBAR

Kirola eta musika uztartuko ditu Urruzuno Trail Fest probak

Asier Orbea URRUZUNO

Urruzuno elkarteak Urruzuno Trail Fest ekimena antolatuko du, hainbat eragileren laguntzarekin; besteak beste, CATT Morkaiko eta Udala. Antolatzaileek aurreratu dutenez, kirola, natura eta festa batuko dituen egun berezia prestatu dute ekainaren 20rako. Egitaraua 5,5 kilometroko mendi lasterketaren bueltan ondu dute. Albitxuri industrialdetik abiatuko dira lasterkariak, eta Urruzuno elkartearen egoitza aurrean egongo da helmuga. Ibilbidea mendiko pistetatik, baso-bideetatik eta bidezidorretatik igaroko da, eta 260 metroko desnibel positiboa izango du. Antolatzaileen berbetan, mendiko

lasterketetan hasi nahi duen edonorentzat diseinatua dago, eskarmentu handiagoko saltakariak ere gozatzeko modukoa dela uste duten arren. Izen-ematea egunean bertan egin beharko da, 5 euro ordainduta.

Festa, bigarren zatian

Lasterketa 17:00etan hasiko da, eta 15:30etik 23:00ak bitartean autobus zerbitzua egongo da Txarridunako biribilgunearen eta Urruzuno artean. Sari banaketa egin ostean, 19:00etan DJ saioa hasiko da. Pires eta J arduratuko dira musika jartzeaz, eta txosna eta janari-furgoneta egongo dira Urruzunoko elkarre aurreko plazatxoan.

Pala txapelketak, azken txanpan

Hil edo biziko unera ailegatu dira Elgoibarko Lagunak Pilota Eskolak antolatzen dituen emakumezkoen zein gizonzkoen bikotekako pala txapelketak, finalerdietako kanporaketak jokatzeko ari baitira egunotan. Domekan izango dute azkena, emakumeena, Ikastolako frontoian (12:00).



ASIER ORBEA



Plaza auzoa, AP-8 autobidea eraiki aurretik; beheengo ageri diren etxeak eraitsi zituzten. AITOR ETXEBERRIAREN BILDUMAKOIA

Ainara Argoitia MENDARO

Auzo bizia izan zen garai batean Plaza, baina porlanak azpian hartu zuen auzo erdi, duela 53-55 bat urte, garapenaren izenean. 1967an hasi ziren Bilbo eta Behobia batuko zituen AP-8 ordainpeko errepidea eraikitzen Gipuzkoan, eta 1970-1971 aldera jaso zituzten lehenengo desjabetze-aginduak Plaza auzoko bizilagunek. Hasierako proiektua beste bat bazen ere, obra-hondakinak beste nonbaitera eramateak obra asko garestitzen zuela arrazoituta, etxeak husteru behartu zituzten Plaza beheko hemezortzi familia, eta eraitsi egin zituzten haien etxebizitzak, bai eta zenbait familia-negozio ere; tartean, errota bat, zerrategi bat, bi taberna eta bi denda. Edadetuak ziren etxegabetu zituzten haietako asko, eta negar egin zuen auzo oso batek, baina isilean. Txikizio handia izanagatik, ez zen gaur besteko zaratarik sortu desjabetze haien inguruan, eta ez zuten gaur jasoko luketena besteko elkartasunik ere jaso orduko bizilagunek. "Diktadura garaia ziren", zehaztu du Jose Antonio Mendikutek, Andikoetxe baserriko semeak.

Mendikute bera da *Plaza auzoa. Oroitzapenen kutxatik* bideoak sei elkarrizketatuetako bat. Harekin batera Plazan sortu eta hazitakoak dira beste lau –Silberio Txurruka, Miguel Mendikute, Juani Iriondo eta Jesus Mari Mendikute–, eta Martitenea Txiki –Txurrukanean– baserrira

Plaza, AP-8 autobideak baztertu eta ahanzturara kondenatatutako auzoa

AP-8 autobidea eraikitzeko, zazpi etxe eraitsi zituzten Plazan. Guztira, hemezortzi familia etxegabetu zituzten, eta apaldu egin zen ordura arte bizi-bizia zen auzoko txilimala. Orduko memoriak dakartza 'Oroitzapenen kutxatik' ikus-entzunezkoak

ezkondutakoa da bosgarrena, Juanita Ugarteburu (Milloi, Berriatua, 1940). Joan den ostiralean proiektatu zuen In Leike kultur elkarteak ikus-entzunezkoa, eta udaletxeko udalbatza-aretoa bete egin zen emanaldirako. Hantxe ziren Plaza auzoa ahanzturatik argitara ekarri duten elkarrizketatuetako lau ere, pozik eta, aldi berean, hunkituta.

Etxegabetu zutenetako bat izan zen Juanita Iriondo. 16 urte zituela eraitsi zuten haren jaiotetxea: Lazkano. Plazan, erdialdera zegoen Lazkano, hiru bizitzako eraikina –Kimuku eta Maltzaga deitzen zieten beste biei–, eta, hura ez ezik, handik beheerako guztiak ere bota zituzten: Mitxelene, Etxeberri, Artzubi, Aizkoltxo, Beheko Errota eta Belortzaki Behekoa; guztira, hemezortzi bizitza. "Orduan, denda, taberna eta ezer gabe

gelditu zen auzoa", gogora ekarri du Miguel Mendikutek, Jan-go baserrikoak. Zortekoak izan ziren eurak, inguruko lurrak-eta galdu zituzten arren etxea zutik mantendu ahal izan zutelako. Gaur, Iturriondo, Txurrukanean, Errementarikoan, Eperkoa, Jan-goan, Andikoetxe, Artañola, Errebidekoa eta Arogei dira Plazan dauden baserriak, eta Arogein ez beste guztietan bizi da jendea.

Oso bestelakoa zen Plaza

Gaurko trazarik ez zuen, beraz, sasoi bateko Plazak. Hasteko, bi errota zeuden: Artañola eta Beheko Errota, eta bertara jotzen zuten auzotarrek artoa irinarekin trukatzera. "Ostiralero etortzen ziren herriko andreak irin-fabrikatik, asto gainean arto-zakuak hartuta, artoa ehotzera. Falta dira gaur, baina errota batetik besterako ur-ka-

nalaren arrastoak ikusgai daude oraindik, belarrez estalita bada ere. Artañola eta Errebidekoa etxeen tarte hartan zegoen presatik hartzen zuen ura Artañolako errotak, eta ur haren indarrak berak eragiten zion Beheko Errotako gurpilari, errotarriak lanean jartzeko. Ez zen, hura, baina, orduko negozio bakarra Plazan: Mitxelene etxearen ondoan, errepidea jotzen, zerrategia ere bazegoen, eta beheragoan, gaur Kurutz-gain industrialdea dagoen inguru hartan, zentrala ere bai. Debako

Zerrategi bat, errota bat, bi denda eta bi taberna ere bota zituzten AP-8ko lanengatik

trekutarrak ziren zentralako jabe, eta Mendaroko Granja baserriko Juan Mari Iriondo izan zen urte askoan hango ardura-dun. Trekutarrek ematen zioten argia Plaza auzoari, baina "eskasa", Iriondo saiatzen baldin bazen ere urak handi zetozenean herrikideei argi hobea ematen. Duela 70 bat urte iritsi zen argindarra Plaza auzora, baina ordura arte karburo- eta kandelargia erabiltzen zituzten etxetan. "Argi eskasa izaten genuen etxean, eta arazoak sortzen zirenean ere inor ez zen kargu egiten. Gu geu ibiltzen ginen lasto-alanbrearekin etenak konpontzen. Lasto-fardoak lotzeko erabiltzen zen alanbrea erabiltzen genuen gaurko kobrezko kablearen ordez", azaldu du Silberio Txurrukak. Edozelan ere, trekutarren zentral hari lotuta badira mila kontu, lerro gutxitan aletu ezin direnak. Hiru ekarriko ditugu hona.

Zentralak funtziona zezan, Deba ibaian zegoen presari lotutakoak dira bideoan aipatzen direnetako batzuk. Aingeru Guardako ermitaren pare hartan zegoen presa, eta hantxe ibiltzen ziren aingiratan auzo-koak, txanaletik. Arrantzarako ez eze, garraiorako ere erabiltzen zituzten txanalak ibaiak beste aldera bizi ziren Igartualdeko baserrietakoek eta. Bost-sei txanal izaten zirela ekarri dute gogora Silberio Txurrukak eta Miguel Mendikutek. "Juan Jose Arrieta *Pajaro*-k sortutakoak ziren gehienak", esan dute. "Bide aldrebesa zuten Igartukoek, eta, buelta osoa ez ematearren, txanala hartzen zuten Plazan, bazkaltzera etxera joateko. Haietako bat, Igartu Berrikoak, eskapada egin zuen ibaiari hazitako zorroren baten. Urak eraman zuen, eta ozta-ozta salbatu zen, sasi artean katigatuta. Txanala urak eraman zuen ibaian beheara".

Argia sortzen hasi aurretik, zentral hark beste bizi bat izan zuela ere gutxi dakite gaur. Baina hantxe izan zuen egoitza bizarra kentzeko xaflak egiten zituen El Fenix enpresak, Estatu mailan publizitatea egiten hasi zen lehenengo enpresetako bat izan zenak –gaur, oraindik ere, ikusgai dago iragarki bat Mendaroko Azpilgoeta auzoan–. Plazan Iberduero sartu zenean itxi zuten zentrala, eta eraikin hartan bertan zabaldu zuten gero Yurrita antzoa-fabrika. Uda



Udalbatza-aretoa bete egin zen ostiralean emanaldirako. LURDES RODRIGUEZ

sasioan, mendaroar askori ematen zien lana Yurritak. Han lan egindakoak dira, mutil koskorretan, Miguel Mendikute eta Jesus Mari Mendikute ere, bai eta Juanita Ugarteburu ere, ez-konberritan. "10-12 bat urterekin hasten ginen han lanean, antxoei buruak kentzen. Mendarotik ere emakume asko etortzen ziren lanera", esan du Jesus Marik.

Errotez eta zentralaz gain, zerrategi bat, harrobi bat, bizikletak konpontzeko tailer bat -Larrea anaiena-, zestogileen tailerra eta eskopetagintzan aritzen zirenen tailerrak ere baziren. Baita bi denda eta bi taberna ere- Intxusai zabaldu aurretik-. Dolores Sorazuk zabaldu zuen estreinako denda, gero Leonor Barrerases hartu zuena, eta Kimukunekoan zabaldu zuten bigarren denda gero. Tabernak ere bi izan ziren sasoi baten: bata, Kimukunekoan, denda itxi ondoren zabaldu zutena, eta bestea, Aizkoltxon, larreatarren tailerra itxi ondoren zabaldu zutena: Otxoa. Eta haietan egin ohi zituzten erromeriak. "Hiru erromeria ere egin ziren urte baten".

Aingeru Guardako jaiak

Aingeru Guardakoa dute patroia Plaza auzokoek, eta martxoaren laren bueltan ospatu ohi dituzte jaiak. Punta-puntako jaiak izaten zirela aipatu dute. "Garaiko bertsolari onenak etortzen ziren hona: Basarri, Uztapide...", esan du, horren harira, Miguel Mendikutek. "Erromeriarako argi falta izaten zen traba handiena, baina egiten ziren auzoko tabernetan eta harrobian, instrumentuek eurek sortzen zuten soinuarekin, aparteko laguntzarik gabe". 2008an, Plaza



Aurkezpenaren momentu bat. LURDES RODRIGUEZ

auzoan jaiotako ondoengoen bizitu zituzten jaiak, eta, geroztik, haiek antolatzen dituzte, Silberio Txurrukaren laguntzarekin eta Udalaren babesarekin. Aingeru Guarda ermita inguruan izaten dira ospakizunak; hain zuzen ere, 1988ko uholdeen ondoren auzolanean berri zuten ermitaren bueltan. Izan ere, teilturaino hartu zuen urak Aingeru Guardakoa 1988ko uholdeetan, eta Angel Bazterretxea abadeak deituta egindako bilera baten erabaki zuten hura bota eta berria egitea. Lehengo ermita zaharrak errepide nagusira begira zuen sarrera, hiruzpalau maila behera eginda; gaurkoa, berriz, Altxola aldera begira dago.

Presape eta Paraiso

Min handia egin dute uholdeek Mendaron, bereziki, Garagartza auzoan, baina, aldi berean, ura da Mendarok duen baliorik handiena. Eta Plaza auzoak badu iturburu bat aipamen berezia

merazi duena. Andikoetxe berritik 50 bat metrora dago iturburu hura, metal-ura ematen duena. Garai batean, zer esanik ez ura etxeetara iritsi aurretik, auzotar guztiek hartzen zuten handik edateko ura txanbiletan, eta bestelakoetarako Intxusai errekarara jotzen zuten, bai arropak garbitzera, bai bainua hartzera. Igeri egiten ere errekan gora ikasi zuten gehienek, Presapen. Presa zahar baten hondakinetan egindako zuloari deitzen zioten Presape. Amurrainek errekan gora egin zezaten eraitsi zuten presa, eta haraxe joaten ziren auzotarrak ez eze Altxolako apaizgaiak ere, aisialdian. Goraxeago, mutrikuarrek sortutako beste presa baten bueltan sortu zen zabalgun bati Paraiso deitu izan diote gerora gazteagoek. Hain zuzen, presa sortu zuten Mendarotik Mutrikura ura eramateko, eta mendarorentzako aisialdigune gogokoena izan zen udan urte askoan.

Gazta-usain gozoko igande goiza



DORLETA LAZAROBASTER

Gazta eta artisau azoka egin zuten Mendaron domeka goizean, Udalak antolatuta. 11:00etatik 14:00etara bitartean, Debarbarreneko gaztandegietako zein bertako artisauen produktuak erosteko eta dastatzeko aukera izan zuten mendaroez. Saltzaileen esanetan, behetik gora egin zuen goizak, eta eguerdirako erruz ibili zen jendea azokan.

Daniel Juarez saxofoi jotzailearen kontzertua, gaur, San Agustinen

A.A. MENDARO

Daniel Juarez saxofoi jotzailearen kontzertua antolatu du gaurko Mesa 7k. San Agustín aretoan emango du kontzertua, 21:30ean hasita, eta sarrerak 15 euroan salduko dituzte. Saxofoi jotzailea, konpositorea eta irakaslea da, ezaguna nazioartean. *Reflexividad* azken lana aurkeztera dator Mendarora. Edertasuna, desioa, identitatea eta perspektiba landu ditu lan horretan Juarezek. Musikaren bidez giza esperientzia unibertsalei buruz hausnartzeko gonbidapena da diskoa, eta nazioarteko eszenan erreferente diren hiru musikariren laguntzarekin aurkez-



Daniel Juarez. SAREA

tuko du: Dario Guilbert -kontrabaxua-, Naima Acuña -bateria- eta Iñigo Ruiz de Gordejuela -pianoa-.

Ikastolaren Eguna ospatuko dute bihar, egun osoko jaiak

Ikastolaren Eguna ospatuko dute bihar Mendaron irakasleek, ikasleek eta familiek. 09:00etan hasiko dituzte ospakizunak, LH6ko ikasleek euren gurasoen kontra jokatu duten areto futbol txapelketarekin. 10:30ean, graduazio-txapelak banatuko dizkiete datorren ikasturtean Elgoibarko bidea hartuko duten ikasleei, eta *photocall*-a jarriko

dute, argazkiak egiteko. 11:00etan, pintxoak banatuko dituzte Arno guraso elkarteok, eta ordu berean zabalduko dute erakusketa eskola-umeek egindako lanekin. Jolasak ere egingo dituzte bazkalurrean. Bazkaria 13:30ean izango da, aurrez txartelak erosiak dituztenentzako. Bazkalostean, hamaika jolas egingo dituzte, haurrek eta etxeok parte hartzeko. Ekintza guztiak ikastolan izango dira. Gimnasioan jarriko dute erakusketa eta jolastokian egingo dituzte gainerakoak.

Ostalarien arteko pintxo txapelketaren lehia bizia, ermuarentzat gozo

Ekainaren 14ra arte dastatu ahal izango dira aurkeztu dituzten hogeit hamar pintxoak

Ander Gomez

Martxan da Lobiano Elkarteak antolatutako pintxo txapelketa; kazoltxoenarekin batera, ermuarrrek gogotsuen espero duten gastronomia hitzorduetako bat. Gainera, ostalarien partaidetzak nabarmen egin du gora: iaz hamalau aurkeztu ziren eta aurten hogeit hamar, bakoitza askotariko osagai, testura eta zaporeak konbinatzen dituen sorkuntza proiektuarekin.

Brioche ogidun proposamenek presentzia berezia izan dute aurten: Burduntzik *Brioche txangurroduna* aurkeztu du, barazkiekin; Jubiletzeak, *Kantabrikoa*, bakailao eta amuarrain arrabekin; eta Zutabek, *Sua*, masailekin eta pikillo-saltsarekin.

Irin- eta arto-tortillekin bildutako pintxoek ere arrakasta izan dute; esaterako: Londonen *Saihets-takoa Pedro Ximenez erara*, kipula eta ondoekin; Otro Plan B-ren *Migratzailea*, haragi xehatuarekin eta guakamolearekin; Titanicen *Azteca takoa*, masail, gazta eta guakamolearekin; Txalapartaren *Buztan-kurruskaria*, gazta eta sagar saltsak dituen txahal-buztanaz egina; eta Zutiken *Takiño*, oilasko eta txerrikiarekin.

Itsas zaporeek indar handia izan dute: Arkupek *Arkupe olagarroa* aurkeztu du, galleta



Sagarraren *Nicigretak* jaso zuen 2025eko Pintxo Kreatiboaren Saria. LOBIANO

krokante eta patata-purearekin; Batzokiak, *Ahate arima*, foie, ahate-urdaiazpiko eta olio-perlekin; Rinconek, *Marea gorria*, piper gorri, bakailao, otarrainka eta txangurroarekin; eta Simonek, *Itsas beltza*, legatz, sagar-konpota eta txipirotintarekin.

Onddoekin egindako pintxoak ere ez dira falta izan; tartean: Antelaren *Amaren txanpiak*, perrexil eta olioarekin; Amatziren *Lizarra*, antxumea ondo eta titi-gazta kremekin; Kiskaren *Basoaren Espiritua*, boletus, ezkaizti eta hurrekin; eta Urkaregiren *Eguzkilo*, porru eta ondoekin.

Bukatzeko, haragizko ohiko pintxoaren proposamen berritzaile



Burduntziren *Croissant iberikoa* izan zen Pintxo Tradizional Onena. JOSEMA AZPETIA

leak ere egon dira, hala nola Giroaren *Txintxu*, fuet, mostaza, piper eta galeper-arrautzekin; Lau Bideren *Zaporeen leherketa*, txerriki, kipula eta letxugarekin; Norberaren *Burdinazko norbera*, masail, patata, apio eta urdaiazpiko iberikoarekin; eta Sagarraren *Arancini Basque Style*, txahal-buztan, arroz-perla eta Idiazabal-kremarekin.

Aurtengo parte-hartze maila handiak epaimahaiaren bisita bifasetan banatzera behartu du: lehenengoa martitzenean egin zuten; bigarrena, atzo. Herriarrek, berriz, domekara arte izango dute pintxo guztiak dastatu eta euren ustez onena zein den erabakitze-ko aukera.



Ongaraiko bizilagunak, auzoa banderaxoekin apaintzen. JOSE GALLARDO

Jokoak, ikuskizunak eta musika eskaintza zabalda Ongaraiko jaietan

Mariachi, erromeria eta 'remember' taldeen kontzertuek eta txarangen eta gaiteroen kalejirek piztuko dute festa

A.G.

Gaur arratsaldean, igel-jokoaren txapelketarekin inauguratuko dituzte Ongaraiko jaiak. Horrekin batera, Foulareda gaita-taldea aterako da kalez kale. 20:45ean, kontzertuak hasiko dira, Four Seasons, Ealain eta Euskelga taldeekin.

Egun potoloa, ordea, zapatua izango da. Eguerdian botako dute jaietako pregoia, eta omenaldia egingo diete "auzoa erakitzen lagundu duten nagusiei". Aurretiko eta osteko uneak Latuna Bandok girotuko ditu; Mallabiko, Soraluzeko, Eibarko, Elgoibarko, Mendaroko, Legazpiko... eta Ermuko musikariz osatutako txaranga da hori. 14:30ean, herri-bazkaria egingo dute, eta bazkalosteak 17:00ak arte iraungo duela aurreikusitako dute. Tartean, *Libre* txotxongilo ikuskizuna egongo da, Arriera konpainiaren eskutik, 15:45etik 16:45era. Orduetik gaueko ordu txikiak arte, musikak ez du etenik izango: 17:30ean, Los Gavilanes mariachi taldearen emanaldia egongo da; 19:45ean, 80ko eta 90eko

hamarkadetako kantuen bertsiok interpretatuko ditu Grezian taldeak; 22:30ean, Begibide erromeriak egungo zein betiko euskal kantak plazartutako ditu, eta, 00:30ean hasita, Remember Gaua egongo da, DJ Bixenteren eskutik.

Jaiak amaitzeko, Ermuko tradizio berezi eta gogorrenetakoa jokatu da: Ongaraiko aldapa bizikletaz igotzeko erronka. Proba bukatuta, 03:00 aldera, txokolata beroarekin agurtuko dituzte jaiak.



Libre txotxongilo ikuskizuna. A.K.

Mihiseetan islatuko dute Ermua, etzi, Mugartearen pintura lehiaketan

Ekainaren 14an, Ermuko 22. Pintura Lehiaketak bertako zein urrunetik etorritako margolariz beteko ditu kaleak. Teknika irekia izango da; baldintza bakarria herriguneko txokoren bat irudikatzea izango da.

Zigilatzea 09:00etatik 11:00etara izango da, Lobianon, eta lanak 14:00etan entregatu beharko dira, beranduenez. Epailerek erabaki bitartean, bazkaria izango dute, Mugartearen eskutik.

17:00etan emango dira ezagutzera irabazleak. Kategoria nagusian 1.200, 800, 400 eta 200 euro

banatuko dira; bertako artisten kategorian, berriz, 250 eta 150 euro. Umeentzat zortzi sari egongo dira; guztiak, pintura-materialez osatutako maletatxoak.



Emakumeen Topalekua margotzen. E.G.

Betiondoko igerilekua eta Ongaraiko ur-parkea zabalduko dituzte bihar

Ekainaren 13tik aurrera, Betiondoko igerileku irekia eta skate parkeko ur-jokoak martxan egongo dira, 10:30etik 20:30era. Igerilekuari dagokionez, abuztuan eta irailean 20:00etan itxiko ditu ateak. Kiroldagiko bazkideek doan erabili ahal izango dute; gainontzeko herritarrek, aldiz, eguneko sarrerak edo denboraldiko abonua eskuratzeko aukera dute: adin txikikoek 36,50 euroan, helduek 61,60 euroan eta familiek 98 euroan. Irailaren 13an itxiko dituzte instalazio biak.



Ezagutu udaberri-udara denboraldiko ehunak!

Ohazalak eta edredoiak
Nordikoentzako zorroak
Izarak
Toallak
Tapizatuak

Udako mantetan aukera zabal!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - www.textillagunak.com

"Lehiatzeko gai garela erakutsi dugu, baina klubaren ardatza umeen heziketa izango da beti"

JOSE BARQUERO 'PITU' ERMUA BLUES TALDEKO PRESIDENTEA

Futbol eskola gisa sortu zen arren, lehiarako jauzia egin du Ermua Bluesek azken urteotan, eta bi denboraldi atzera sortutako senior taldea mailaz igotzea lortu dute

Ander Gomez

Jose Barquero Sierra *Pitu*-k (Ermua, 1977) 2012an sortu zuen Ermua Blues. Egun, klubeko presidente eta eskolako koordinatzaile izateaz gain, Bigarren Erregional Mailara igo berri den senior taldea entrenatzen dihardu.

Nolako izan da denboraldia?

Oso gogorra. Urte osoa lehen lau postuen artean eman dugu, baina Aste Santuko oporraldien ostera atzeratutako partida erabakigarri bat galdu genuen eta kolpe psikologiko handia izan zen. Gero, sufritutako partidak eta azken minutuan irabazitakoak izan ditugu, eta azken jardunaldian 4-0 irabazi genuen hemen, Betiondon.

Eta igoera fasea?

Sekulakoa. Trapagaranen aurka joan-etorriko kanporaketa izan genuen. Bi jokalarik kanporatu zizkiguten, eta, hala ere, 0-2 jar-ztea lortu genuen [azkenean, 1-3 irabazi zuten]. Partida hartan sentitu nuen lehen aldiz igoera posible zela. Futbolari moduan ere ez dut egun hartan sentitu nuena bezalakorik sentitu.

Zer ekarri du maila igoerak?

Ilusio handia egin digu eta bultzada handia izan da klubarentzat, baina egia da hori ez zela helburua. Eskola sortu nuenean helburua formakuntza zen, eta gaur egun ere hori da lehentasuna. Gazteekin lan egin nahi nuen, ez senior futboleant. Urte luzez Estatuko hainbat taldetan jokatu ondoren, oso erreta amaitu nuen. Herrira bueltatu nintzanean, pentsatu nuen futbolari beste ikuspegi batetik heldu eta buelta bat eman niezaiokeela.

Errealitate bihurtu da amestutako eskola hura?

Nire hasierako asmoa Ermua CDren baitan sortzea zen, for-

makuntza hutsean oinarrituta, eta, aldi berean, gazteak etorkizunean talde nagusietarako prest egon zitezten. Baina orduko zuzendaritzak ezezkoa eman zidan, eta pena handia hartu nuen. Azken bi urteotan *Herriko kluba* leloa erabiltzen hasi dira taldea izendatzeko, eta nik ere hala ikusten dut: ermuarra naiz, han hasi nintzen futboleant eta bertan erretiratzea eskatu nuen; kariño berezia diot. Neukan ideia gauzatzeko bide berri bati ekin behar izan nion, ordea, eta, kostata bada ere, aurrera atera da.

Zeri ezin izan diozu aurre egin?

Lehiakortasunaren olatuari, eraman egiten zaitu. Konturatu naiz lehiatu ezean ezin dela jakin ikasten ari zaren horrek benetan funtzionatzen duen edo ez, eta guraso askok hori eskatzen dute. Lehiatzea ez da helburua, baina, agian, beharrezkoa da.

Noiz eman zenuten lehiarako jauzia?

Infantilen hamaikako futboleko lehen taldea sortzean, 2015-2016 inguruan. Anaitasunako eta San Pelayoko hainbat familiak deitu zidaten, seme-alabak jokatzeko talderik gabe geratu zirelako. Hasieran ezezkoa eman nuen arren, konbentzitu egin nindu-



Jose Barquero *Pitu*, klubaren bulego bihurtutako Betiondoko aldagelatan. A.G.

ten; eskola hori, hain zuzen, ume guztiei jokatzeko aukera bat emateko sortu baitzen.

Filosofia hori mantentzen duzue?

Erabat. Horregatik ematen dit pena jendeak eskola *lehiakor* bezala ikusteak. Ez dugu hautaketarik egiten, ezta inor kanpoan uzten ere. Hori bai, taldeak mailaren arabera antolatzearen aldekoak gara: maila handiagoko duenak erronkak behar ditu; eta txikiagoa duenak, jokatzeko espazioa.

Zenbat lagun zarete guztira?

30 ume eta hiru monitorea ginen hasieran; egun, 400 gara. Eta ermuarrak ez ezik, Mallabiko, Eibarko, Elgoibarko, Mendaroko, Soroluzeko... umeak daude.

Nola sortu zen senior taldea?

Gazte askok eskolan jarraitzen zuten, entrenatzaile, baina jokatzeari utzia zioten edo talderik gabe geratu ziren. Nik ez nuen argi ikusten, baina tematu egin ziren eta, azkenean, taldea sortu genuen.

Eskolak emandako fruituak erakusteko balio izan du, behintzat.

Bai, eta pozarren gaude. Oso gaizki pasatu dugu. Hasieran, jendeak barre egiten zigun, galdu egiten genuelako, armarrarian pottokia daramagulako... Baina Athleticek eta Realak jokalaririk fitxatzen dizkigu, eta nagusien igoerak erakutsi du lehiatzeko gai garela. Dena den, hori ez da helburua; uste dut umeen heziketak izan behar duela Ermua Bluesen oinarria.

Hori izan da igoera lortzeko gakoa?

Nik garbi daukat baietz. Jokalari gehienak etxeakoak dira, gure eskolan hazitakoak, eta gaur egun klubean monitorea lanetan dihardute. Eurak dira klub honen bihotza, eta gauzak ondo egin ditugun erakusgarri nagusia.

Zein izan da zailtasunik handiena?

Jokalari horiek nire lankideak ere izatea. Asteazkenean eskola kontuz hitz egiten dugu, eta asteburuan nik erabaki behar dut nork jokatzeko duen eta nork ez. Ez da batere erraza. Barne-gatazka horren ondorioz, birritan pentsatu dut taldea entrenatzeaz uztea.

Zer bultzatu zaitu aurrera egitera?

Mutilekin egin nuen berba, eta arazoa neure buruan zegoela esan zidaten: "Haserre ikusiko gaituzu jokatu ez dugulako, bai-

na hor bukatzen da dena". Horrek asko lagundu zidan. Hala ere, oso nekatuta nago. Jende askok uste du hau nire lana dela, baina futbola utzi eta herrira bueltatu nintzanean tailerrean sartu nintzen, eta gaur arte. Hau bokazioa da eta lan handia eskatzen du. Txantxetan diot meatzari batek baino ordu gehiago sartzen ditudala hemen.

Nola irudikatzen duzu Ermua Bluesen etorkizuna?

Herri-mailan hobeto ulertuak izatea gustatuko litzaidake. Ez gara eskola pribatu bat, ezta negoziotik ere. Familiek ordaintzen duten kuota klubaren eguneroko jarduna mantentzera bideratzen da, eta umeek entrenamenduetako zein partidetakoa arropa guztia jasotzen dute ezer gehiago ordaindu barik. Irabazi-asmorik gabeko elkarteak gara, dirulaguntzen eta lagatako instalazioen beharra dugu aurrera egiteko, eta urte hauetan guztietan umeei jokatzeko aukera bat emateko baino ez dugu lan egin.

Bestetik, kirol arloan, behin lehiakortasuna ez gara galdituko. Kategoria federatuetan ahalik eta urrunen iristea izango da gure erronka.

"Hemen hazi eta gaur umeen entrenatzaile diren jokalarien lorpena da, eurak dira klub honen bihotza"

"Herri-mailan hobeto ulertuak izatea eta kategoria federatuetan irabazten jarraitzea gustatuko litzaidake"



Igoera Zallan lortu zuten, Betolatzari irabazita eta Gazteluetarekin berdinduta. ERMUA BLUES



Bizi natura saioko lantaldea, Urdaibain. EITB



Edorta Unamuno, aurkezpenean. EITB



Eder Grande irabazlea, alkatearekin. E.U.



Iker Garcia eta liburutegiko teknikaria. E.U.

Edorta Unamuno biologo eta ornitologo ermuarra, aurkezle 'Bizi natura' saioan

Xabier Sukiari laguntzen dihardu ETB1eko emisioetan eta Africa Baetari ETB2koetan

Estibalitz Gonzalez

Bi aste atzera estreinatu zen *Bizi natura* telebista saioa. Urdaibaiko basabizitza gertutik ezagutzeko leiho ireki bat izateko jaioa, egunero gerturatzen die ikusleei biosferaren erre-serba den gune natural haren faunaren eta floraren aberastasuna: hegaztien, anfibioen, narrastien, ugaztunen eta abar-ron eguzte eguneko hemezortzi kameraren diskreziorik gabeko begiei esker sartzen dira zuzen-zuzenean Euskal Herriko etxeetan.

Urdaibaiko lekurik estrategikoena aukeratu dituzte kamerok kamuflatzeko, eta lantalde itzela: 40 pertsona inguruk dihardute paduraren barruan den Gautegiz Arteagako Bird Center gune ornitologikoko instalazioetan lanean.

BBCKekin hitzarmena egin du EITBk, Ingalaterran arrakasta handia duen saio baten formatu berean Euskal Telebistaren bitartez emititzeko, egunero ordu erdiz eta ETB On plataforman hamabi orduko zuzenekoan. EITB1eko saioa 13:30ean ikusteko aukera dute ikusleek, Xabier

Sukiak aurkeztuta. EITB2koa, ostera, Africa Baetak gidatzen du eta 19:30ean aireratzen da.

Aurkezpen lanetan laguntzen dihardute Edorta Unamunok berak eta Lexeia Larrañaga durangarrak. Ikusten dutenari buruz dakitena esatea da bion eginbeharra.

Urteak daramatza ermuarrak Urdaibairen dibulgatzaile lanetan, eta erronkatik bizi du egitasmu berri hori: "Plazera da jendea ezagutaraztea hemen ikasi eta ikusi dudana. Saltsa hauetan, gustura beti!" dio, ilusio handiz.

Ermuko tropela, ugariena nonahi

Udaberrikopan harrobi eta lagun-tzaile talde sendoa duela erakutsi zuen Ermuko Txirringularik, baina beteranoak ez dira atzean geratzen. Estatuko proba zikloturistetan parte hartzen dute, eta aurtan hiru aldiz jaso dute talde ugariaren saria: Castro-Castro martxan, Aitana Tourrean eta aurreko asteburuko Lagos de Covadonga erronkan.



ERMUKO TXIRRINDULARI

Eder Grande eta Iker Garcia garaile liburutegiaren komiki lehiaketan

Ander Gomez

Otsailean, Komikiaren eta Nobela Grafikoaren Hiruhilekoaren ospakizunaren baitan, komiki eta ilustrazio tailerra egin zuen Udal Liburutegiak. Umeei eta gazteei zuzenduta zegoen, eta Martin Azpilikueta komikilaria eibartarrak gidatu zuen. Apirilera arte, marrazketa-, irakurketa- eta narrazio-gaitasunak landu zituzten, eta jardura horren bueltan antolatuz, hain zuzen, Ermuko seigarren komiki lehiaketa. Epaimahaia Azpilikuetak berak, *Ermua binetetan* komikiak ilustratzen dituen Kike Infamek eta liburutegiko langileek osatu dute.

LHko kategorian, bosgarren mailako hamabost ikaslek parte hartu dute, eta Eskolabarriko Iker Garcia jaso du saria, *Mr. Potato eta skatea* lanarekin. 60 euroko bonua irabazi du, komikiak edo marrazketa-materiala erosteko. Bigarren Hezikuntza eta oinarrizko Lanbide Heziketako kategorian, Ermua BHI eta Ermua-Mallabia OHL institutuak ikasleek parte hartu dute eta hiru lan aurkeztu dira. Saria Eder Grandentzat izan da, *Ascenso* lanarekin, 90 euroko bonua irabazi du. Sari-banaketan, diplomarekin batera, komiki-sorta bana jaso dute irabazleek ikastetxeek.



Ascenso lanaren ilustrazio bat. EDER GRANDE



Mr. Potato komikiko bineta bat. IKER GARCIA



BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

BERGARA - 943 044 728

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

943 743 704
688 769 657

Goi-tentsioko lineen ugaritzearen harira, plangintza "bermatzailea" aldarrikatu dute

Udalak antolatutako jardunaldian, azpiegitura horien eragina aztertu dute, eta lurraldearekiko begirune handiagoa izango duen plangintza energetikoa aldarrikatu

Garazi Mendieta

Energia berriztagarrien proiektuen eta goi-tentsioko linea berrien ugaritzeak kezka handia sortu du eskualdean. Egoera horri heltzeko, Mallabiko Udalak informazio saio irekia egin zuen joan den ostegunean Kontzejuzarran, UME proiektu fotovoltaiakoari eta herria zeharkatu nahi duen linea elektrikoari buruz xehetasunak emateko.

Igor Agirre alkateak, Alberto Arrate abokatuak eta Dario Acuña Fisiologia katedradunak hartu zuten parte saioan, eta, mota horretako azpiegiturak nonahi jartzearekin lotuta, "zuhurtzia-irizpideak" aplikatzea babestu zuten.

Osasuna eta ingurumena ardatz

Saioan azaldu zenez, Udalak alegazioak aurkeztu zituen bai proiektu fotovoltaiakoaren aurka, baita herria zeharkatu nahi zuen goi-tentsioko linearen aurka ere. Alegazioak udal-txosten teknikoetan eta osasun, ingurumen zein lege arloetako perituzta espezializatueta oinarritu ziren.

Honako hauek izan ziren erabilitako argudio nagusiak: natura-ingurunean eta babestutako faunan izan ditzakeen kalteak, azpiegitura etxebizitzetatik gertuegi egotea –adibidez, Ariño baserria– eta tramitazio administratiboan hautemandako hainbat irregulartasun.

Gai kezkarrietako bat eremu elektromagnetikoek osa-



Jardunaldiak adituak eta bizilagunak batu zituen Kontzejuzarran. G.MENDIETA

sunean duten eragina izan zen. Dario Acuña katedradunaren arabera, hainbat ikerketa zientifikok eremu horiekiko esposizio luzearen eta haurren leuzemiaren artean harremanak antzeman dituzte. Acuñaaren esanetan, arrisku-atalasea 0,3 eta 0,4 mikrotlesla artean dago, gaur egungo legediak baimentzen dituen mugen oso azpitik.

Bestalde, Alberto Arrate abokatuak azaldu zuen Mallabiko

kasua ez dela bakarria, azpiegitura horien aurkako oposizio soziala gero eta zabalagoa dela. Lineak lurperatzeko aukera aipatu zuen paisaia eta hegaztiak babesteko, baina irtenbide hori ere ingurumen-irizpide zorrotzekin egin behar dela ohartarazi zuen.

Plangintza txukuna eta herria babestea

Parte-hartzaile guztiak ados zeuden: trantsizio energetikoak plangintza ordenatuagoa behar du. Arratek ohartarazi zuenez, energia berriztagarrien hedapen azkarrak ez dakar beti banaketarako estrategia argi bat, eta horrek lurraldean inpaktu handiagoa duten lineak sartzea dakar.

Udalak argi utzi nahi izan du bere jarrera ez dela energia berriztagarrien aurkakoa, baizik eta ingurumen, lurralde eta gizarte berme nahikorik ez duten proiektuen aurkakoa.



Dario Acuña, azalpenak ematen. G.M.

Denboraldia, esku bete sari bukatuta

Joan den barikuko denboraldi amaierako festan denentzako garaikurrak egon ziren: Superigandeetako lehen hiru sailkatuentzat –Ariane Garcia izan da aurtengo txapelduna–; Kirol Eskolako taldeetako kide guztientzat –futbola, saskibaloia, tenisa eta multikirola–; eta familien arteko igel, bolo eta petanka jokoetan lehiatu zirentzat.



AD MALLABIA FT

Lizeaga-Balardi eta Beitia-Elorz bikoteek lortu zituzten finalerako txartelak

Lizeagak eta Beitiak erakustaldia egin zuten aurrealdean, eta bi partidatoko markagailu bera errepikatu (22-5)

Eneko Lopez

Pilota profesionalerako bidea markatzen duen Biharko Izarrak txapelketak maila itzela erakutsi zuen hasieratik, eta joan den astean Mallabiko frontoian jokatutako finalerdiek ez zuten inor epel utzi.

Lehenengo finalurrekoak kolore bakarria izan zuen. Lizeagak eta Balardik osatutako bikote gorriak erakustaldia egin eta finalerako txartela eskuratu zuen, urdinak 22-5 menderatuta. Izar nagusia gorrien aurrelaria izan zen: Eñaut Lizeaga. Pilotari gazteak partida ederra jokatu zuen kantxan, pilotakada guztiak ziurtasunez errematatuz eta jokoaren erritmoa bere gogora gidatuz. Irribarria eta Goikoetxea saiatu ziren partidari aurre egiten, eta tantorik tanto borrokatu ziren norgehiagoka osoan. Hala ere, etsipena nagusitu zen urdinen jokoan minutuak aurrera joan ahala; ahaleginak egin arren, ezin izan zuten Lizeagaren erakustaldia gelditu.

Astigarragako aurrelariak ondo daki Mallabiko txapelketak duen pisua eta prestigioa. "Hemen pilotari oso-oso onak ateratzen dira profesionaletara, egungo nagusiak hemendik pasa dira", adierazi zuen BARRENAren mikrofonoen aurrean. Final handiaz eta haren etorkizunaz galdetuta, argi zuen zein den bere ametsa: "Orain, finalaz gozatuko dugu, eta hurrengo urratsa gora egitea da, profesionaletan sartzeko aukera izatea".



Lizeaga, adierazpenak egiten. E.L.

Bigarren partidaren ere, kolore gorria gailendu zen eta Bingen Beitia aurrelaria izan zen partidako gakoa, erasoan erakutsitako eraginkortasunari eta Elorzekin izan zuen konpentzioari esker. Etxebarriak eta Apeztegiak, saiatu ziren arren, ez zuten aukerarik izan, eta gorriek 22-5 menderatu zituzten.

Gaur erabakiko dira irabazleak

Biharko Izarrak txapelketaren 22. aldiko finalak gaur jokatuko dira, 19:00etan, Mallabiko frontoian. Gogoratu beharra dago txapelketak sistema berezia duela. Bikoteak aldatu egiten dira txanda bakoitzean aurrelariak eta atzelariak nahastuz, denek denen aurka joka dezaten, pilotarien banakako maila neurtzeko eta finalera onenak bakarrik iristen direla ziurtatzeko. Hala, Lizeaga-Elorz eta Beitia-Balardi bikoteek jokatuko dute gaurko azken hitzordua. Aurretik, Gamindek eta Zabaletak neurtuko dituzte indarrak, emakumezkoen lau eta terdiko finalean.

Martin II.a oroitu dute, hark nahiko zukeen moduan, frontoian

Gaur zortzi, zazpi bikoteek jokatuko zuten Ander Martinen omenezko lehen frontenis txapelketa mistoa. Finalean, Jule-ne eta Mikel Solozabal nagusitu ziren, Itsaso Pradera eta Kaiet Correiren kontra, 16-11. Lehiatz haratago, antolatzaileek nabarmendu dute gauerdia pasata harmailetan zegoen jendetza eta sortu zen giro hunkigarria.

Zapatueroko ume eta gaztetxoek abentura txangoak dituzte bihar

2016 eta 2022 urte artean jaiotako umeen taldea Berangoko Sputnik Climbing-era joango da, eskalada egitera. 2010 eta 2015 urte artean jaiotako nerabeen taldea, berriz, Sopuerta Abenturara, natura-ingurunean tirolina, zubi eta sare artean zuhaitz batetik bestera ibiltzera. Bi irteerak Petritetik abiatuko dira, bihar, 15:45ean. Itzulera 19:00etan izango da.

Kanpaiak ez dute gauez joko, eta horrelaxe egongo dira udan zein neguan

Alkatetzaren dekretu baten eskaerari men eginez isilarazi dituzte kanpaiak gauez

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Joan den asteaz geroztik, ez dago kanpai-hotsik gauez. Zehazki, ekainaren 3az gero, 22:00etan entzun daitezke eguneko azken kanpaiak eta 08:00etan, berriz, lehenengoak.

Soraluzeko Udalak eskatuta ezarri dute kanpaien ordutegi hori. Hain justu, apirilaren 14an, alkatetza-dekretuz, Andre Maria Erreginareneko parrokiari idazki bat aurkezteko eskatu zitzaion, "kanpandorrearen soinu emisioa indarreko araudian ezarritako mugetara egokitzeko proposatzen diren neurri zuzentzaileak zehaztu ditzan".

Epaitegietan

Joseba Gonzalez parrokoak esplikatu duenez, alkatetzaren dekretuan eskatutako neurri zuzentzaileak bete ezean gaiak epaitegietan bukatuko luke, eta, seguru aski, epaile batek aginduko luke neurriak betetzea. Hala, agindu horri erantzunez aurkeztu ahal izango litzateke helegitea, eta parrokiak erabaki du epaitegietara ez jotzea.

Hiru urte kendu nahian

Kanpaien gaiak zeresan handia eragin du udalerrian urteotan.

2022an, herritar talde batek eskatu zuen udan gauez kanpaiak ken zitzatela, loa galarazi eta atsedenerako eskubidea eragozten zirela. Zietelako kanpai-doinuek.

Kexu haien harira, astebetzez kanpaiak isilaraztea erabaki zuten parrokiakoek, baina, esan



Kanpandorreko kanpaiak, herrigunetik ikusita, atzo, eguena. U.M.Z.

zutenez, segituan iritsi ziren kanpaien aldeko herritarren kexuak. Hori ikusita, sinadura bilketa egin zuten. 501 lagunek sinatu zuten kanpaiak bere horretan mantentzearen alde. Sinadurak parrokiari zein udaletxean aurkeztu, eta parrokiak betiko moduan laga zituen kanpaiak.

2024an, berriz, kanpaien gaineko kexua Arartekoarengana eraman zuten, eta, hark, idatzi baten bidez, kanpaiak eragindako eragozpenak zirela eta indarrean zegoen araudiaren arabera eginda zituen edo egingo zituen jarduerari buruzko argibideak eskatu zituzten Udalari.

Txosten teknikoak

2025ean, Udalak txosten teknikoak egin zuten kanpaien zarata-maila neurtzeko. Halako lanetan aditua den enpresa batek soinu-neurketak egin zituen herri-

ko hainbat puntutan, bai kalean eta baita etxebizitza partikularren barnean ere.

Udalaren esanetan, haien arabera, elizako kanpaien hotsak ez ditu betetzen Zarataren 37/2003 Legearen 1367/2007 Errege Dekretuak –neurketa horietan aplikatzen den prozedura– eta Euskal Autonomia Erkidegoko 213/2012 Dekretuak ezarritako muga-balioak. Horren ondoren, 2025eko uztailean eskatu zion parrokiari kanpaiak isil zitzan, uda garaian, 23:01etik 06:59ra.

22:00etan jotzen dituzte azken kanpaiak eta 08:00etan, berriz, lehenak

Zarata gehiago ere badaude

Irailean iritsi zen parrokiaren erantzuna. Jakinarazi zuen ez zituela kanpaiak isilduko. Esplikatu zuenez, eliztarrei gaiari buruz hausnartzeko eskatu ondoren, "gutxi esan zuten prest zeudela eta gehiago handi batek ezetz" esan zuen. Xehetasunen arabera, eskaera ez onartzeko hainbat arrazoi eman zituzten eliztarrek: "Batzuek esan zuten kanpaiak ez entzuteak molestak zituela. Beste batzuek esan zuten beste zarata batzuk ere badaudela herrian eta zarata horiekin bizi gairela. Beste batzuek esan zuten kanpaiak ez direla zarata, doinua baizik. Beste batzuek esan zuten legearen arabera zaraten neurketa aintzat hartu behar dela etxeak elizaren alboan dauden kasuetan, eta Soraluzeko kasuan ez dela horrela. Eta beste batzuek esan zuten legeak esango baligu kanpaiak kendu egin behar direla, ba kendu egingo ditugula".

Komunikabide nazionalerara

2025eko azaroan, berriz, gaiak komunikabide nazionalerara salto egin zuen –EITB, TVE, SER...–, PSE-EEko udal taldeak bidalitako ohar baten ondoren. Bertan, gogora ekarri zuten txosten tekniko baten arabera kanpaien doinuak legeak ezarritako maila gainditu egiten duela, eta eliztarrei eskatu zien bizilagunen atsedena errespetatu dezatela. Halaber, kezkatuta azaldu zen, parrokiak uko egin ziolako gauez kanpaiak isiltzeri, nahiz eta Udalak hala eskatu.

Azkenik, 2026ko ekainean iritsi da dekretu bidezko eskaera. Eta aurrerantz, udan ez ezik, urte osoan, gauez, isilik egongo dira kanpaiak.

Eskolaz kanpoko eskaintzen eskuorria kaleratu du Udalak

2026-2027ko ikasturterako haurren eta gaztetxoaren aisialdi-eskaintza bateratua biltzen duen eskuorria argitaratu du Soraluzeko Udalak, herriko hezkuntza ez-formaleko eragileekin eta elkarteekin elkarlanean. Azaldu duenez, helburua da herriko aisialdi eskaintza zabala aintzat hartuta familiek adin bakoitzerako dauden aukeren berri modu bateratu eta ordenatuan jasotzea; halaber, izen-emate garaia hasten den erako familiek aukera guztien berri izatea.

Eskuorriaren argitalpenaren berri emateaz bat, Udalak jakinarazi du izen-emate batzuk zabalik daudela dagoeneko.

Ekainaren 26an txerri-masail lehiaketa izango da Itxaropenan

Aurrera egingo du Itxaropena Erretiratuen Elkarteak proposatutako txerri-masail lehiaketak. Martitzenerako bost bikotek eman zuten izena, lehiaketarako kopuru minimoa; beraz, ekainaren 26an lehiaketa izango da Itxaropenan. Oraindik bada lehiakide gehiagorendako lekua. Izena emateko azken eguna ekainaren 18a da. Hura itxitakoan jakinaraziko dituzte xehetasunak; edozelan ere, erabakita dute lehiaketako txerri-masailen pintxoak partituko dituztela egunean bertan.

Bestalde, Costa Bravako bidaiaren erretratuekin erakusketak ipini dute elkartean.

ODR
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoen, pertsiariek, ateak, barandiak, salmenta eta konponketak

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Sagar Enka Kalea 2 - 20960 SORALUZE
e-mail: odr@lehoak@gmail.com

Txoko

Eguneko menua, plater kordinatuak, handisagarrak, ogitartekoak, rudiak, pizza, gozaila...

Entzartuak agintzen dira
Tel. 943 75 17 01

Elektrizitatea Iturgintza Igeltseritza Pintura

EXGA S.L.

679 623 584
Soraluze

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri esazu zure publizitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

943 743 704
688 769 657

aras
zehaztasun handiko piezak

Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 36 - 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tornilleriasaras.com
www.tornilleriasaras.com

SORALUZE MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraluze

474 556 817 - 943 75 21 38

itv

ELIZPE HORTZ KLINIKA

Tel. 943 75 25 67

Terraza, kontzertuak, dardoak...

Ostiraletan pintxopotea

Gipuzkoa etorbidea 1

Ekainaren 18an, eguena, Bizikale Azoka egingo dute, erakustaldi, pintxo eta guzti

Azoka amaitutakoan, 100 euroko bonu bat zozketatuko dute

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Datorren asteko eguenean, ekainaren 18an, Bizikale Merkatarik Elkarteak udako azoka egingo du, BizikaleFest. 10:00etatik 21:00ak arteko azoka iragarri dute eta bertan, herriko hamar establezimenduren produktua eta eskaintzak izango dira: RKL ile-apaindegia, Mabel ile-apaindegia, Kooperatiba, Autoservicio Amparo saltokia, Iratxo goxo-denda, Belarrak eta Triskel belar-dendak, Okelia eta Iñarra harategiak eta Todo a 100 saltokia.



Iñarra eta Okeliako harakinak, aurtengo azokaren kartelarekin. U.M.Z.

Aurten, eguenean

Egun eta eskaintza berrieekin dator BizikaleFest azoka.

Egunari dagokionez, barikuan barik, aurten azoka eguenean egitea erabaki dute, bi arrazoi-rengatik. "Batetik, udako ostiraletan herrian jende gutxi egoten delako; bestetik, osteguna izanda, jendea kalean ibiltzen delako pintxo-potearen bueltan", esplikatu du Bizikaleko Ainhoa Ibarzabal kideak.

Erakustaldiak

Eskaintzari dagokionez, berriz, dendariak euren saltokiak eta eskaintzak izateaz aparte, arra-

tsaldean hiru saltokik erakustaldiak egingo dituzte, "tokiko profesionalen inspirazioa eta aholku praktikoak ezagutzeko zuzeneko erakustaldiak": 17:30etik18:30era, RKL ile-apaindegia; 18:30etik19:00etara, Belarrak loradendak eta 19:00etatik 20:00etara, Mabel ile-apaindegia.

Jana eta zozketa

Azoka borobiltzeko, jatekoa eta bonu-zozketa ere izango dira arratsalde partean.

Jatekoari dagokionez, Okelia eta Iñarra harategiak arduratu-

ko dira horretaz. Esandakoaren arabera, harakin bakoitzak bina pintxo berezi prestatuko ditu azokan izango den plantxa-sukaldetxoan, eta pintxo horiek erosteko aukera izango da. 18:00etan hasi eta 20:00ak arte izango da horretarako aukera.

Bonu-zozketari dagokionez, berriz, azokan erosten duten erosleei partaidetza emango diete 100 euroko bonu baten zozketan parte hartzeko. Zozketa azoka amaitutakoan egingo dute eta irabazleari telefonoz jakinaraziko diote saridun izan dela.

"Dena oso ondo" joan zen Triatoloian, goizetik goizaldera



U.M.Z.

Antolatzaileek, partaideek, ikusleek zein udal ordezkariak. Zapatuan, Triatoloian seigarren aldian parte hartu zein hura ikusi zuten guztiek esan zuten gauza bera, "dena oso ondo" irten zela.

Gazteek goizetik ipini zuten "giro ederra" herri-gunean. Kirol probek aurrera egin ahala,

gainera, ikusle eta animatzaile mordoxka erakarriz zituen ekimenak.

Arratsalde-iluntzean, berriz, bazkaltzetik irteaz bat, lehenengo udaletxeko balkoira eta segidan herriko kaleetara eta tabernetara eramane zuten jai-giroa; Triatoloia goizetik goizaldera arteko festa-herrikoi bilakatu zen.

NIRE USTEZ

"Vivir es urgente..."



AITOR ALBERDI 'XUSTER'

Horiexek izan ziren bere hileta eskelako berbak, bere berbak... Berak jada bazekien zein zen bere azkena, baina ez, ez da inongo amore ematerik izan; alderantziz... Beti bezala, ondo ezagutzen genuenok bagenekien bere onena eman eta azken hauspora arte borrokari eutsi ziola. Roberto zen gerlari nekaezinarendako ere guda irabazgaitza; azkenean, gailendu ezina.

Bidean galdu ditudan lagun minen zerrendara gehitu zara, zoritxarrez, eta berba honek zeure omenez dira.

Azken urteetako prozesu madarikatu honek fisikoki banandu gintuen, baina nire egunerokoan oso presente zintudan: batzuetan, arduraz eta etsipenez; beste batzuetan, berriz, esperantzaz eta argitasunez.

Heriotzari begietara so eginez joan zara..... bildur barik, eman beharreko dena emanda, eta beste behin eta azkenekoz, izan zaren aparteko pertsona zarela erakutsita.

Agur eta ohore, lagun; inoiz atzera elkartuko garelakoan, eskerrik asko denagatik. Eta beste denondako, bai famili, lagun, lankide eta Lagarren inguruan egon zaretenondako: pausuz pausu, egunez egun, bizi eta zaindu maite duzun hori! Agurrak.



Lagun taldea, gaztetan. Tartean, Roberto Lopez Lagar -lehenengoa eskumatik-.



SEMAFOROIA

"Txapuza hutsa da"



"Txapuza hutsa da"; haserre berba egin du P.L. herritarrak Baltegiako galtzada-harrien egoerari buruz. Obra bukatu berri den arren, ja zulo batzuk daude eta galtzada-harri asko ondo lotu gabe ikusten dira. Udalarari helarazi dio egoeraren berri.

"Pozik eta eskertuta nago Realari ematen didan aukerarengatik"

ANDER AGIRREGOMEZKORTA CUENDE REALEKO JOKALARI BERRIA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Ander Agirregomezkorta Cuende (Soraluze, 2011) Sorako erdilaria Realak fitxatu berri du. Gazteak urtebete eman du, Soran jokatzear bat, Real Sociedad klubeko kadeteen taldearekin ere entrenatzen eta jokatzeko. Maiatzaren amaieran, berriz, Realak jakinarazi zion hura fitxatu nahi zuela, eta Soraluzeko gazteak baiezkua eman dio.

Pozik notiziarekin? Barneratu duzu dagoeneko?

Oso pozik nago. Txikitatik izan dudana ametsa da. Ja barnertuta daukat. Bertako ohiturak eta jendea ezagutzen ditut, eta errazago hartuko naute ekipoan. Baina ez nuen guztiz espero. Denboraldi ona egin dut, Zubietan ondo ibili naiz eta zerbait merezi nuela uste nuen, baina espero, guztiz ez.

Zure inguruan zelan hartu dute notizia?

Familiak eta lagunak oso ondo hartu dute. Uste dut oso pozik daudela, gertuko pertsona batek zerbait lortu duela ikusteak eta hura pozik ikusteak norbera ere pozten duelako. Denoi gustatuko litzaiguke egoera hau bizi izatea, eta jendea poztu egiten da lagun bat hor ikustean.

Zehazki, zer esan nahi du Realarekin fitxatzeak?

Hainbat urtetarako hartu naute. Demaseko zortea dudala uste dut. Askori gustatuko litzaioke hau, baina denek ez dute zortetik izan. Pena ematen dit Sora



Agirregomezkorta, zubian. U.M.Z.

lagatzeak, baina uste dut pauso hau ematea ondo etorriko zaidala, gehiago hobetuko dudalako. Gehiago ikasteko aukera handia eta esperientzia polita dela uste dut.

Noiz hasiko zara han?

Uztailaren 28an denboraldiaurrea hasiko dut. Gogo handia daukat, aldaketa handia izango dut egunerokoa, dena den, hasteko gogo handiz nago. Bestalde, Institutuko ikasketei Zubietan jarraipena eman ahal izatea aukera ona da. Horrela, azterketak-eta han prestatu, eta hemen nagoenean aprobeztatu dezaket beste gauza batzuk egiteko.

Baduzu esperientzia Realarekin; taldekideak ezagutzen dituzu?

Urtebete egin dut han, eta taldekideak ezagutzen ditut. Konfiantza daukat batzuekin, eta entrenatzaile gehienak ere

ezagutzen ditut. Zehazki, oraindik ez dakit zein izango den nire entrenatzailea eta ekipoa, baina ezagutu denak ezagutzen ditut, eta oso jatorrak direla iruditzen zait.

Orain artekoa ikusita, zer gustatzen zaizu gehien? Eta zer egiten zaizu zailena edo gogorra?

Gehien gustatzen zaidana da esperientzia hori bizi ahal izatea eta bertan ikasi ahal den guztia. Askori ikasi daitekeela uste dut. Jende asko ezagutzen da eta lagun oso onak egin daitezke. Gutxien gustatzen zaidana, berriz, da denbora asko bertan pasatzen dugula eta ez dudala denbora nahikoa lagunekin eta familiarekin egoteko.

Iaz Realean hasi zinenen imajinatzen zenuen honaino iritsiko zine-la?

Ez nuen uste hain bizkor etorriko zenik; agian, urte batzuk geroago etor zitekeela bai, baina hain bizkor ez. Oso azkar pasatu zait. Denboraldi bakarrean ja fitxatzea. Esperientzia oso polita izan zen Aste Santuan Gasteizen jokatu genuen lehen txapelketa; oso ondo pasatu nuen.

Behin hemen, noraino nahiko zenuke ailegatu?

Hau lortuta, gustatuko litzaidake ahalik eta denbora gehien egon ahal izatea Realean, eta, hain zuzen ere, ahalegintzen eta lan egiten lortu dezakedala uste dut. Hortik aurrera, denborak esango du.



SoraGazteak Rugby Klubeko lau jokalarri, iazko Errugbi Egunean. SORAGAZTEAK RUGBY

Bihar, zapatua, 200 bat lagun elkartuko dira VII. Errugbi Eguna ospatzeko

Errugbi partiduak 10:00etatik 12:30ak arte izango dira

U.M.Z. SORALUZE

Bihar, zapatua, Soraluze errugbiaren erakusleho bilakatuko da, VII. Errugbi Eguna ospatuko baita, SoraGazteak Rugby Klubaren eskutik.

Arabatik, Bizkaitik zein Gipuzkoatik etorriko diren 200 bat lagun topaleku bilakatuko da udalerrria. Antolatzaileek esandako moduan, "errugbi blai" izango da Ezoziko zelaia.

Partiduak, jolasak...

Klubeko ordezkari Enekoitz Igartuak esplikatu duenez, 09:30ean harrera egingo diete Soraluze bisitatuko duten taldeei: Gipuzkoako Hernani Rugby Klubari, Atletico San Sebastian Klubari, Eibar Rugby Taldeari eta Mutriku Rugby Taldeari; Arabako Gaztedi Rugby Taldeari; eta Bizkaiko Durango Rugby Taldeari.

Elkarren artean berba batzuk egin ondoren, 10:00ak inguruan hasiko dira 10-12 urtez azpiko errugbiaren arteko partiduak, eta jo eta su ibiliko dira, 12:30era arte. Iaz bezala, aurten ere hainbat jolas ipiniko dituzte zelaitik kanpo, ikusleak errugbiarekin ere diberti daitezke; eta zelaian, berriz, partiduek iraun bitartean, umeendako fruta eta ura izango dira.

Dominak eta opariak

Azkenik, kirol saioa amaitutakoan, talde-argazkiak atera eta partaide guztientzako dominak partituko dituzte. Borobiltzeko, hirugarren denboran, umeentzako opariak banatuko dituzte; SoraGazteak Rugby Kluba ibili da horiek batzen eta lortzen, eta *staff*-ari ere emango dizkiote opariak; hala, elkarrekin borobilduko dute eguna.

Asierren eta Iñakiren aldeko pilota txapelketa, final-laurdenetan

U.M.Z. SORALUZE

Asierren eta Iñakiren Omenezko Pilota Txapelketa azken fasera ailegatu da. Atzo, eguna, hasita, bihar eta datorren asteke egunean eta barikuan jokatu dituzte final-laurdenak. Finalerdiak, berriz, ekainaren 25etik 30era jokatu dituzte. Eta uztailaren 11n, San Andres auzoko jaietan, jokatu dute finala.

Herri bazkaria

Bestalde, aurten, txapelketaren 25. urteurrena da, eta kirol jarduera oroimenarekin uztartuko dute. Hala, ekainaren 27an herri bazkaria izango da. Tikitak salgai daude, ekainaren 21era arte, Arrano, Bolia, Gila eta Edurtza tabernetan. Prezioa da 10 euro umeendako, 14 euro langabeendako eta 18 euro langileendako.

Herri bazkaria 15:00etan izango da, eskolako frontoian. Bizimina elkartekoek ipiniko dute menua: entsalada, haragi-paella edo beganoa, edaria, postrea eta kafea. Bestalde, bazkariaren aurretik eta ondoren, bestelako ekimenak izango dira: 13:00etan, Mendotz eta Bizkairekin triki-poteoa; eta bazkalostean, 25. urteurreneko ekitaldia. Hura amaitutakoan, berriz, musika izango da, Kafe Du Pont taldearen eta DJ Mutil Haundiren eskutik; eta, azkenik, barru txapelketa jokatu dute.

Euskadiko Kopa jokatu dute hockeykoek asteburuan

Asteburu honetan, Bilboko Zorrotza kiroldegian Euskadiko Kopa jokatu da, lineako hockeyan, nesken mailan. Eta bertan lehiatuko da Soraluzeko eta Aguraingo hockey jokalariz osatutako MIK Marras taldea.

Bihar, zapatua, 16:00etan hasiko dira finalerdiak. Lehenengo, MIK Marras taldeak Ber-

garako Burdinola taldea izango du aurkari. 16:00etan jokatuko dute herrikideek. Ondoren, Gasteizko Sumendi taldeak Bizkaiko Metropolitan taldearen kontrako finalerdia jokatuko du, 17:15ean hasita. Finalerdietan irabazten dutenek domekan bertan jokatuko dute Euskadiko Kopako finala. Hori 13:45ean izango da, Zorrotzako kiroldegian bertan.

Marras irristaketa taldekoek finalerdia "partidu zaila" izango dela aurreikusten dute; hala ere, dena ematera joango dira.

"Dantza eskola izatea garrantzitsua da, Soraluze dantzak bere lekua izan dezan"

IRENE VAZQUEZ ETA MIREN HAZAS DANTZA ESKOLAKO IRAKASLEAK

Egoitz Unamuno Loidi SORALUZE

Urrats Dantza Taldeak eta Udalak Soraluze Dantza Eskola proiektua jarri dute martxan, eta datorren ikasturtean, Irene Vazquez (Eibar, 1999) eta Miren Hazasek (Eibar, 1998), hurrenez hurren, dantza garaikideak eta euskal plaza dantzak irakatsiko dituzte. Biak dira gazteak, eibartarrak eta dantzaren munduan esperientzia luzea dutenak.

Bi eibartar Soraluze dantza irakasten.

Irene: Bai, hala tokatu da. Gainera, nik senideak ditut Soraluze eta gaur egun hemen bizi naiz.

Miren: Ni ez naiz hemen bizi, baina nik ere senideak ditut Soraluzean.

Kontatu, zein lotura duzue dantza-erkin?

I: Nik 4 urte nituenetik egiten dut dantzan. Gaztetxotan komertzial garaikidea eta balleta egin nituen Eibarren eta 18 urterekin Madrileran joan nintzen dantza ikasketak egitera. Bi-hiru urte egin nituen han, eta pandemia ailegatu zenean bueltatu egin nintzen. Gaztegotan dantza irakasle jardun

nuen Eibarren, eta iaz Soraluze eman nituen dantza garaikideko eskolak. Egia esateko, dantzaren bueltan bizi izan naiz beti.

M: Ni 6 urterekin hasi nintzen euskal dantzetan, Kezka dantza taldean, eta geroztik bertan jarraitzen dut dantzari. Arte Ederrak ikasi nituen eta gradu amaierako lana dantzaren inguruan egin nuen. Garai hartan eman izan nizkien euskal dantza eskolak umeei, eta ikuskizun batzuetan ere parte hartu izan dut; adibidez, *Dantza* filmean eta Argia dantza taldearekin. Azken bi urteotan eman izan dizkiet eskolak umeei, helduei eta adinekoari, Eibarren, Soraluze eta Elgoibarren.

Datorren ikasturtean dantza eskola jarriko da martxan. Zein berrikuntza ekarriko du?

M: Nik uste dut eskola sortzea garrantzitsua dela, herrian dantza munduko jendea batzeko, kirolen aurrean leku bat izateko eta dantza indartzeko. Gainera, kontuan izanda iaz euskal dantza umeen taldea bertan behera gelditu zela, eskolak lagunduko du hutsune hori betetzen. Bestalde, aurrera begira,

eskolak emateko gutxieneko baldintza eta baliabide batzuk izateak laguntzen du proiektua iraunkorra izaten. Bestela, askotan, dantzako proiektuak, edozein dantza motatakoak, amaitu egiten dira.

I: Eta gelditzen da futbola... Eskertzekoa dela Soraluze Udalaren laguntza eta babes herrian dantza eskola bat sortu ahal izateko. Lehen aldiz eskainiko da aukera aldi berean bi dantza mota lantzeko. Eta laster, helduentzako dantza garaikidea ere eskainiko dugu.

M: Bi dantzak batera eskaintzeak dakar dantza mota batek ez zapaltzea bestea; herrian oreka hori bultzatzea ona da.

Hala ere, dantza bakoitzak bere irakaslea izango du.

I: Bai. Irakasle bakoitzak menderatzen du dantza mota bat eta bakoitzak menderatzen duen

"Ikasleentzat onuragarria da dantza garaikidea eta euskal dantzak ikastea"



Vazquez eta Hazas. EU

hori irakatsiko du. Ikasleentzako ere onuragarria izango da bi dantzak ikastea, aberatsagoa.

M: Bi dantza oso ezberdinak dira. Euskal dantzak dira bertakoak, gure kultur tradizioari lotuak. Dantza garaikideak, berriz, dira ez hain hemengoak eta malguagoak. Dantza mota bakoitzak ditu bere ezaugarriak eta bere esparrua.

Zuen ustez, dantza eskolak zein helburu izan behar du?

I: Nire ustez, helburu garrantzitsuena da datozeneko ondo pasatzea eta dantzaren bitartez

euren burua ezagutzea. Nik gaztetxotan deskubritu nuen bakarrik dantza egiteak laguntzen duela norbere buruarekin lasai egoten. Hori erakutsi nahi diet.

M: Ondo pasatzea ikasleek, eta nik ere bai. Nik irakatsi nahi diet dantzara plazara irten eta gustura egin dezaten, eta, bide batez, gaur egun umeei eta gazteek dantza egiteko izaten duten lotsa hori gainditzen ere bai. Dantza eskolaren helburuak izan behar du dantza kalera ateratzea Soraluzean.

"Zoragarri" ibili ziren ikasturte amaierako irteeran

JendartEkin ekimeneko partaideak "zoragarri" ibili ziren eguaztenean Abadiako jauregira egin zuten irteeran. "Egun ederra pasatu dugu; jauregiaren historia interesgarria ezagutu eta Hendaiaiko parajeaz gozatu dugu", kontatu zuen Ana Maiztegik, JendartEkineko kideak eta zinegotziak.

Abadiako irteera horrekin borobildu du ikasturtea JendartEkin ekimenak. Hain zuzen, 2025-2026ko ikasturtean 25 pertsona ibili dira iraunkorki parte hartzen.



JENDARTEKIN

Ekainaren 25ean hasiko dira danborradaren entseguak, frontoian

U.M.Z. SORALUZE

Jaietako nagusien danborrada antolatzen diharduen taldeak jakinarazi duenez, ekainaren 25ean hasiko dira aurtengo entseguak. Uztailaren 21era bitartean, martitzenero eta eguenero entseatuko dute, 19:30etik 20:30era, frontoi zaharrean.

Ohartarazi dutenez, danborradan barrila zein danborra joko dutenek derrigorrez joan beharko dute entsegetara; gutxienez, hiru entsegetara eta entsegu orokorrera bai, behintzat.

Entsegu orokorrari dagokionez, berriz, uztailaren 21ean izango da, 19:30ean, hura ere frontoi zaharrean. Eta danbo-

rradak berak uztailaren 25ean desfilatuko du, 22:00etan hasita.

Oraindik bada lekua

Aste honetan helarazitako datuen arabera, momentuz, 162 lagunek eman dute danborradarako izena –bandako musikariak kontatu barik–.

Danbor eta barril-jole konpainiak beteta daude; berehala bete ziren haiek. Dena den, oraindik bada lekua danborradan parte hartzeko, gremioen konpainietan desfilatzeko. Horretan parte hartzeko interesa duenak mezua idatzi behar du honako helbide elektroniko honetara: soraluzekodanborrada@gmail.com.



Foru Aldundiko eta Gipuzkoako kostaldeko udalerrietako ordezkariak, Orioko Antilla hondartzan. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Egunotan aritu dira Debako Santiago hondartzako toloak jartzen. N.B.A.

Bihar, larunbata, hasiko da aurtengo hondartza-denboraldia Deban

Irailaren 13ra arte iraungo du denboraldiak, Deban nahiz Mutrikun. Gipuzkoako kostaldeko udalek Jasangarritasun Sailak bideratutako 1,7 milioi euroko laguntza jasoko dute aurtan, udan hondartzen kudeaketa integrala egiten laguntzeko

Izaro Aulestiarte

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak Orion inauguratu du 2026ko hondartza-denboraldia. Ekitaldia astelehenean egin zuten, eta Jose Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatua eta lurraldeko kostaldeko udalerrietako ordezkariak izan ziren bertan; tartean ziren Alazne Txurruka eta Ainhi-ze Azpiazu ere, Debako eta Mutrikuko alkateak, hurrenez hurren.

Denboraldia bihar, ekainak 13, hasiko da Deban, Mutrikun, Hondarribian, Getarian eta Zu-

maian, eta irailaren 13ra arte iraungo du. Orion, aldiz, ekainaren 15etik irailaren 15era izango da; eta Zarautzen hilaren 1ean hasi zen eta irailaren 15era arte iraungo du.

Jose Ignacio Asensio nabarmendu zuenez, "hondartzak lurraldeko espazio natural eta bizikidetzako espazio baliotsuetako bat dira. Espazio seguru, irisgarri eta jasangarriak izaten jarraitzea nahi dugu, pertsonen gozamenaren ingurunearekiko errespetuaren eskutik joan dadin beti". Era berean, hauxe gehitu

zuen: "Inaugurazio hau Ozeanoen Munduko Egunean ospatzeak gogorazten digu gure itsasoaren babesa gure hondartzetan ere hasten dela, biodibertsitatea kontserbatzen eta itsas ingurune honakinen inpaktua murrizten laguntzen duten eguneroko keinu txikien bidez".

Guztira, 4,1 milioi euro aurtan Denboraldiaren hasiera ofiziala Jasangarritasun Departamentuak 1,7 milioi euroko dirulaguntza-le-rrero bat aktibatutako ondoren iritsi da, kostaldeko udalei uda-garaian

hondartzen kudeaketa integrala egiten laguntzeko. Adierazi dutenez, guztira, 2026an 4,1 milioi euro bideratu dituzte hondartzen kudeaketara. Zuzkidura horrek iaz bideratutako baliabideak "bikoiztea baino gehiago" dakar, eta Hondartzen Mahaian lortutako akordioaren esparruan udalerriekin hartutako konpromisoa berresten du.

"Hondartzak ondare komuna dira, eta horiek kudeatzeko erakundearen erantzunkidetasuna behar da. Ahalegin ekonomiko horrekin, udalerrri guztiek kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko eta itsasertzaren segurtasuna, irisgarritasuna eta jasangarritasuna indartzeko behar adina baliabide izatea bermatzen dugu", adierazi zuen Asensio.

204.403,13 euro Debako Udalari Debako Udal Gobernuak azaldu duenez, Aldundiarekin lortutako akordioak sorospen eta zaintza zerbitzuen kudeaketa zentralizatu jasotzen du, Aldundiaren Erosketa Zentroaren bidez: "Horri esker, kontratazio eraginkorragoa eta koordinatuagoa egingo da, Gipuzkoako hondartzetako zerbitzuen kalitatea ziurtatze-

ko". Aldundiak funtsezko zerbitzuen kostuak bere gain hartuta Debako eta beste udalerrri batzuek aurrezpen ekonomiko nabarmena izango dutela gogorarazi dute: "Guztira, 204.403,13 euroko dirulaguntza jasoko dugu hondartzetako zerbitzuak finantzatzeko".

Alkatearen esanetan, lankidetzak hondartzetako zerbitzuak "kalitatezkoak eta egonkorrak izaten jarraitzea bermatzen du, kostua udalerriri bakarrik egokitu gabe. Horri esker, baliabide publikoak modu arduratsuan kudeatu ahal izango dira".

Bada, bihurtik aurrera egongo dira erabilgarri Santiago eta Lapari hondartzetako ohiko zerbitzuak: toloak, dutxak, sorospen zerbitzua, bainu egokitua eta aldagelak, besteak beste. Horiek modu egokian erabiltzeko eta erabilera arauak errespetatzeko eskatu diete herritarrei.

Ohiko zerbitzuak egongo dira erabilgarri Santiago eta Lapari hondartzetan

220 herritarrek eman dute izena tokiko energia-komunitatean

I.A. DEBA-ITZIAR

Debako Udalak jakinarazi du TEK Deba-Itziar komunitate energetikoak "harrera bikaina" izan duela herritarren artean. Izan ere, joan den igandean, ekainaren 7an, itxi zuten izen-ematea, eta eskaintako plaza guztiak bete direla adierazi dute; guztira, 220 herritarrek erabaki dute komunitatean par-

te hartzea. "Parte-hartze horrek energia berriztagarrien aldeko interesa eta konpromisoa islatzen du, eta herritarren erantzun oso positiboa berretsi du", nabarmendu du Udal Gobernuak.

Egitasmoari buruzko azalpenak emateko helburuarekin, bi saio informatibo egin zituzten apirilean: bata Deban eta bestea Itziarren. Eta herritarrek batza-

rretan erakutsitako "interesa handia eta parte-hartze aktiboa" azpimarratu ditu, beste behin ere, Udal Gobernuak.

"Guretzat pozgarria da hainbeste herritarrek parte hartu izana. Azkenengo hilabeteetan erakutsitako interesa eta konpromisoa ikusgarriak izan dira. TEK Deba-Itziar proiektua Debaren etorkizun energetikorako urrats garrantzitsua da, eta eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu herritar guztiei parte hartzeagatik", esan du Alazne Txurruka alkateak.

Deba eta Zumaia arteko autobus zerbitzua indartu dute

Lurraldebusek Deba eta Zumaia arteko autobus zerbitzua indartu du. DB05 lineako beste zerbitzu bat gehitu die orain artekoiei. Zehazki, egunero 20:40an irtengo da autobusa Debatik, eta, Itziar igaro ondoren, Zumaian amaituko du ibilbidea. Zerbitzua aste honetan jarri dute martxan; astelehenaz geroztik dago erabilgarri.

Lurraldebusek azaldu duenez, neurri horrek arratsalde-gau partean bi herrien arteko mugikortasuna erraztea eta garraio publikoaren zerbitzua hobetzea du helburu.

Gogorarazi dutenez, autobus zerbitzuen ordutegi guztiak Internet bidez, Lurraldebusen webgunean (lurraldebus.eus), edota erabiltzaileei arreta zerbitzua emateko 900 30 03 40 telefonoan kontsultatu ahal izango dira. Bide beretik egin daiteke azken orduko aldaketan eta albisteen jarraipena ere.

Banatu dituzte Mendata ikastetxeko literatur lehiaketari dagozkion sariak

Guztira, 223 ikaslek parte hartu dute deialdian, eta bost lagunek jaso dute saria

Izaro Aulestiarte

Herenegun, hilaren 10ean, banatu zituzten Mendata institutuak eta Zuhatza elkarteak antolatutako euskarazko literatur lehiaketaren sariak. Aurtengo deialdian 223 ikaslek parte hartu dute, eta bost lagunek jaso dute saria, Amets Carrillok, Igor Larrañagak, Alazne Txurrukak eta Nahia Urkaregik osatutako epaimahaiaren erabakiz.

Lehen zikloan, DBHko 1. eta 2. mailetan, Lide Agirrezabala nagusitu da, *Lotuta* izenburuko lanarekin. Elene Arakistainek lortu du bigarren saria, *Koloreak nire begietan* idazlanarekin, eta Laida Rotetak epaimahaiaren aipamen berezia jaso du, *Iluntasunean izarren argia* lanari esker. Bigarren zikloan –DBHko 3. eta 4. mailak–, berriz, Izaro Onekaren *Ez da mundua bi koloretan sartzen* lanak irabazi du

lehen saria, eta Leire Aizpuruak eskuratu du bigarrena, *Puzlearen ezkutuko piezak* idazlanagatik.

Sariak

Liburu elektroniko bat jaso dute sari gisa ziklo bakoitzeko lehen

sarituak, eta Elkar liburu-dendan erabiltzeko 60 euroko opari-txartela irabazi dute bigarren sarituek. Bestalde, liburu bat eman diote aipamen berezia lortu duen ikasleari, eta Zuhatzaren poltsa bana ere irabazi dute bostek.



Aurtengo irabazleak, sari banaketa ekitaldian. ZUHATZA

Bazkidearen Eguna ospatuko du, hirugarrenez, Kultur Elkarteak

I.A.

403 bazkide dauzka gaur egun Debako Kultur Elkarteak, eta, haien guztien babesa eta ekarpena eskertu nahian, egun osorako egitarau berezia prestatu dute biharko, ekainak 13.

Eguna hasteko, Ostolaza Sariak banatuko dituzte, "udalerriko kultur jarduera aberasten laguntzen duten herritarren eta

erakundeen lana aitortzeko eta aintzatesteko" helburuarekin. Epaimahaiak lau sari emango ditu aurten ere: *Sortzaileak*, *Dinamikak*, *Ezibestekoak* eta *Hazia Saria*; sarietarako hautagaiak herritarrek proposatu dituzte aurrez. Ekitaldia 12:00etan izango da, Kultur Elkartearen aretoan.

14:30ean, berriz, herri bazkaria egingo dute, Arrano Elkartearen,

eta *NEU: Bingo musikatu jostari bihurria*-k girotuko du bazkalostea, 16:30ean hasita.

Skabidean, iluntzean

Egitaraua Skabidean taldearen kontzertuak biribilduko du, 20:00etan, Kultur Elkartearen plazan. Zuzeneko berezia izango da, gainera. Izan ere, Iruñeko taldeak *Herri kuttuna* diskoa aurkeztuko du. Lan horrek biltzen dituen zazpi abestien artean dago "Jose Manuel Ostolazari eta Debako herriari omenaldia" egiten dien *Ostolaza* kanta.

Euskal dantzek hartuko dute bihar, larunbatez, Foruen plaza

I.A.

Gure Kai Euskal Dantzari Taldeko kideek eta Deba Musikal udal musika eta dantza eskolako dantzariak ikasturte bukaerako jaialdia egingo dute bihar, hilak 13, Foruen plazan. Emanaldia 19:30ean hasiko da eta 70 dantzari baino gehiago ariko dira ohol-tza gainean. Kalez Kale txistulari taldeko partaideak, soinu-joleak,

dultzaineroak eta trikitilariak izango dituzte bidelagun.

Dantza eskoletan egindako lana erakusteko xedez antolatuko dute jaialdia; sei talde aritu dira asteroko entseguetan ikasturtean. Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Lapurdiko dantzek osatuko dute saioa, eta, bukatzeko, fandangoa, arin-arina eta kalejira egingo dituzte, ohi legez.



Iazko jaialdian ateratako talde argazkia. IGOR BAROJA

500 bat ikusle Kulunkaren jaialdian



JULENE SOTELLO

Aurreikuspenak gaituz, Kulunkaren ikasturte-amaierako jaialdiak 90 dantzari eta 500 ikusle inguru bildu zituen joan den larunbatean Aldats pilotalekuan. Pozarren dago Alaitz Izaga dantza eskolako arduraduna. "Oso ondo atera zen dena, egia esan, eta primeran pasa genuen. Beraz, ikusle guztiei eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen", azpimarratu du.

NIRE USTEZ

Pistolak herrian



NAHIA EGUSKIZAGA

2024ko martxoaren 5etik suzko armen araudi berria dago indarrean: 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udaltzainek pistola erabili behar dute. Legeak dio alkateek erabaki ahal izango dutela zer

zerbitzu emango den armarik gabe: bulego-lanak, irakaskuntza-funtzioak, protokolo-ekitaldietara joatea eta antzeko beste batzuk, adibidez, "betiere, funtzionarioen edo hirugarrenen bizitzarako edo osotasun fisikorako arrazoizko arrisku larrik ez badago".

Gure herriko udaltzainen bizitza arriskuan al dago? Badirudi baietz. Orain, pistola daramate. Premiarik badago?

Zein mezu transmititzen zaie herritarrei? Nola hurbildu behar dut arma bat daukan udaltzain batengana? Udaltzainak errespetagarriagoak al dira horrela, hurbilagoak? Hobeto lagunduko al diete herritarrei? Seguruago al gaude horrela? Zein formazio jaso dute udaltzainek suzko arma bat eramateko? Mehatxu al gara? Armen presentzia normalizatu egin behar al dugu herrian?

Herri bazkari baten bueltan agurtuko du 2025-2026ko denboraldia Amaiak-Batek

Denboraldia agurtzeko, gainera, urteko batzar nagusia egingo dute gaur

Nerea Bedialauneta Alkorta

Amaiak-Bat Kirol Elkarteak asteburu honetan amaituko du 2025-2026ko denboraldia, urteko batzar nagusia eta herri bazkaria eginda. Azken urteotan bi ekitaldiak egun berean egin izan badituzte ere, aurten bi hitzordu bereizitan egingo dituztela jakinarazi dute klubeko arduradunek.

Urteko batzar nagusia gaur, ekainak 12, izango da, Kultur Elkarteko areto nagusian. Lehen deialdia 19:00etarako da eta bigarrena, berriz, 19:30erako. Zuzendaritzak bazkideei, zaleei eta herritarrei bertaratzeko dei egin die, eta jorratuko diren gaien garrantzia azpimarratu du. Batzarrean hainbat gai landuko dituzte; besteak beste, 2025-2026ko denboraldiko balantze ekonomikoa eta kirol-balantzea, txirrindularitza atalaren denboraldiko balorazioa, hurrengo denboraldirako aurrekontua, bazkideen kuotak eta kirol-plangintza.

Gaurko bileraren ostean, bihar, ekainak 13, ospakizunen txanda izango da. Azken urteotako ohiturari eutsita, denboraldia agurtzeko herri bazkaria egin-



Iaz Aldats pilotalekuan egindako herri bazkaria. AMAIAK-BAT

go dute, Aldats pilotalekuan, 15:00etan hasita. Jokalariak, entrenatzaileak, zuzendaritzako kideak, laguntzaileak, bazkideak eta zaleak elkarrekin ospatuko dute denboraldiaren amaiera; guztira, 375 bat lagun elkartuko dira. Paella izango da eguneko plater nagusia, eta menua hasierako iberikoek eta postreak osatuko dute.

Ohorezko Mailan

Denboraldia, gainera, mailaz igota amaitu du emakumezkoen lehen mailako kadete taldeak.

Aurreko larunbatean, ekainak 6, jokatu zuten txapelketaren azken jardunaldia, Errotazarren, eta Martuteneren aurka lortutako puntu bakarrarekin -0-0 egin zuten- nahikoa izan zuten sailkapeneko lehen postuetan amaitzeko eta, beraz, Ohorezko Mailara igotzea ziurtatzeko.

Xabi Arakistainek entrenatzen duen taldeak denboraldi ikusgarria osatu du. Jokatutako hamabost neurketetatik hamar irabazi dituzte, hiru berdindu eta bi bakarrik galdu. Ibilbide sendo horri esker, 33 punturekin

sailkapeneko hirugarren postuan amaitu dute txapelketa, bigarren izan den Arrupe Chaminade taldearekin puntuetan berdinduta. Txapelketa Aizkorri Segurak irabazi du, 35 punturekin.

Egoitz Konde klubeko presidentea pozik dago taldearen lorpenarekin, eta, azaldu duenez, denboraldi osoan egindako lanaren eta ahaleginaren emaitza izan da igoera. Haren esanetan, igoera ez zen denboraldi hasieran jarritako helburu nagusietako bat, baina taldeak erakutsitako mailak eta jokalariek egindako lanak aukera hori errealitate bihurtu dute: "Ez zen hasierako helburuetako bat, baina oso pozik gaude horrela irten delako".

Txapeldunorde

Aiert Zinkunegik entrenatzen duen haur mailako mutilen taldeak, berriz, galdu egin zuen aurreko igandean, ekainak 7, Mintxetan jokatu zen Lehen Mailako Kopako finala; hain zuzen, Lagun Onakek irabazi zuen neurketa, 1-0.

Partida oso lehiatua izan zen. Lehen zatia berdinketarekin amaitu zuten, baina, zorigaiztoko jokaldi baten ondorioz, 53. minutuan Iker Artechek sartutako golari esker aurretik jarri ziren aurkariak. Debarrek ez zuten amorerik eman, eta, berdinketaren bila jardun bazuten ere, ez zuten zortea aldeko izan eta ez zuten golik sartzea lortu.

21 mendizale gazte sarituko dituzte etzi, Andutz Egunean

N.B.A.

Burdin Kurutz Mendi Taldeak antolatuta, etzi, ekainak 14, ospatuko dute Andutz Eguna. Parte hartu nahi dutenek Itziaroko Enpresa Parkeko sarreran daukate hitzordua jarrita, Ayra Cardan fabrikaren parean. 11:00etan abiatuko dira handik oinez Andutzera, eta urtero egiten duten ibilbidea osatuko dute.

Irteeraren ondoren, aurtengo mendi irteeretan parte hartu duten ikasleei sariak banatuko dizkiete Itziarren. Guztira, 21 mendizale gaztek jasoko dituzte opariak, ikasturte osoan egindako parte-hartzea aitortzeko. Ekitaldia borobiltzeko, bertaraten diren guztiek elkarrekin hamaketakoa egiteko aukera izango dute, antolatzaileek salda beroa eta txorizo egosia banatuko baitituzte.

Irailean berriro martxan

Irailean ekingo diete ikasleekin egiten dituzten irteerei. "Ikasturtea hasi bezain pronto hasiko gara martxan", zehaztu du taldeko kide Joxe Mari Altzibarrek, eta erantsi du eguraldi txarragatik bertan behera geratutako bi irteerak ere egin nahi-ko lituzketela.

Errealaren Lagunak elkarteak egindako bazkarian Errege Kopa izan da protagonista

Asier Riesgok eta David Zurutuzak urrezko intsignia jaso dute ekitaldian

N.B.A.

Joan den larunbatean, ekainak 6, Debako zale txuri-urdinek egun ahaztezina bizi izan zuten. Errealaren Lagunak elkarteak omenaldi bero eta hunkigarria egin zien Asier Riesgo eta David Zurutuzak jokalaria ohiei, urte luzez klubaren koloreak defendatzeagatik.

Baina hitzorduak bestelako pizgarri bat ere izan zuen zaleentzat: Sevillan Atletico Madrilen aurka irabazitako Errege Kopa. Bertaratu zirenek garai-kurra gertutik ikusteko aukera

izan zuten, eta ia inork ez zuen galdu nahi izan harekin argazkia ateratzeko aukera.

Ekitaldia, gainera, ez zen bazkideen bazkari arrunt bat izan. Bertan, klubeko ordezkaritza zabala izan zen. Jokin Aperribay presidentea ere han izan zen, eta hitzorduak haren zat esanahi berezia izan zuela azaldu dute, debarra baita jaitzez. Harekin batera Realeko zuzendaritza batzordeko hainbat kide eta klubeko jokalaria ohien ordezkaritza bat ere izan ziren Deban.

Eguna ohorezko aurrekuarekin eta zumardiko kioskoko eskaileretan ateratako talde-argazkiarekin hasi zuten. Ondoren, hitzordu bereziko txuri-urdin jantzi zen Itxas-Begi elkarte gastronomikora joan ziren guztiak. Bertan 65 bat bazkide elkartu ziren, giro ederrean, eta pasarteak eta bestelako oroitzapenak partekatu zituzten.

Avila eta Urquiri ere bai

Bazkalostean, lagunarteko presidente Koldo Agirrezabalak eskerrak eman zizkien bertara-



Avila, Zurutuzak, Urquiri eta Riesgo omenduak, Realeko eta Errealaren Lagunak elkarteko ordezkariak, Errege Kopa ondoan dutela. ERREALAREN LAGUNAK

tutako guztiei, eta, tartean, Riesgoren eta Zurutuzaren kirol ibilbideak azpimarratu nahi izan zituen, bereziki, baita haiek urte luzez Real Sociedaden izena harrotasunez ordezkatu dutela ere. Aitortza gisa, Errealaren Lagunak elkarteak urrezko intsignia bana ezarri zien bi kirolariei. Txalo

zaparrada artean jaso zuten saria, lagunarteko kideen eta zaleen maitasunaren adierazgarri.

Ekitaldiak beste errekonozimendu batzuk ere izan zituen; urteetan egindako lana esker-tzeko, Rosa Avila eta Jose Ignacio Urquiri kideei ere urrezko intsignia eman zieten.

Hilabeteotan Itziarren egin dituzten "ekintza bandalikoak" gaitzetsi ditu Auzo Udalak

Gertaerak salatu eta herritarrei "arduraz eta gizalegez" jokatzeko eskatu die

I.A. ITZIAR

Itziar Auzo Udalak gogor gaitzetsi ditu azken hilabeteotan herriko hainbat gunetan egin dituzten "apurketak eta ekintza bandalikoak". Ohartarazi du gertaerak errepikatzen ari direla, eta, hortaz, ez direla "kasu isolatuak edota besterik gabekoak". Ondare publikoaren kontrako erasoak "onartezintzat" jo, eta, egoerari aurrea hartu nahian, neurriak hartu dituzte la jakinarazi dute.

Joan den ostiralean plazaratutako adierazpenean eman zuten gertakarien berri. Diotenez, urte hasieran, hilerrira bideko farolak hautsita agertu ziren. Handik aste batzuetara, plazako komun publiko berriak puskatu egin zituzten, eta "inguruko pareta txukunduak, pintaketa iraindunetz zikindu". Egun bertsuetan, eskola-baratzeko etxolak kalteak jasan zituen. Erromeria Egunaren ondoren, herriguneko farol ugari apurtu zituzten. Eta, gainera, berriki, Burugorri eraikinean kokatutako ludotekara sartu, armairua pintaketekin desitxuratu eta musika aparatua lapurtu dute.

10.000 euroko kalteak

Toki Entitate Txikiak azaldu du 10.000 bat euro bideratuko dituela ekintza horiek guztiek eragindako kalteak konpontzera. "Itziar Auzo Udala erakunde txikia da eta gaitasun ekonomiko apala du lehendik. Horrelako kalteek eragin zuzena dute guztion den



Farol ugari apurtu dituzte. AUZO UDALA



Pintaketak agertu dira hainbat lekutan.

ondarearen mantentzean. Egingandako apurketen konponketak 10.000 euro inguruko kostua izango du, herriko aurrekontutik hartua", adierazi du.

Salaketa eta murrizketak

Gertaerak salatzearekin batera, egoerari aurrea hartu nahian, jadanik zenbait neurri hartu dituztela jakinarazi du Auzo Udalak. Batetik, salaketa ofiziala jarri dute Udaltzaingoa, eta Ertzaintzara bideratu dute dagoeneko. Ohartarazi dute egileak identifikatzeko ikerketa ekar dezakeela salaketa horrek; "eta, hortaz, eragindako kalteak ordainaraziko lirarteke, ahal den neurrian". Bestetik, orain arte herritar guztientzat erabilgarri izan diren zerbitzu batzuk mugatzea erabaki dute; besteak beste, Burugorri eraikinerako sarbidea murriztu egingo dute,

giltza berriaren kopiak pertsona jakin batzuei soilik emanda. Herriko Plazako komun publikoak, aldiz, itxita egongo dira egoera argitu bitartean. Gainera, antzeko gertaerak ugaltzen badira zaintzarako bitartekoak jartzea aztertuko dutela aipatu dute.

Itziar Toki Entitate Txiki ordezkariek "kezkatuta" daude azken gertaerek eragindako egoeraren harira. "Batez ere, kezagarria da Itziarren babestu nahi dugun elkarbizitza eta herrigintza ereduarekiko portaera horiek dakarten degradazioa. Bihurrikeria soiltzat hartu eta gutxiesteak halakoak normalizatzea baimendu dezake, eta, orduan, heziketa arazo baten aurrean ginateteke", azpimarratu dute. Hala, "joera tamalgarri horiek bideratzeko", herritarrei "arduraz eta gizalegez" jokatzeko eskatu diete.



Iaz Sasiolan egindako ospakizuna. JOXERRA LARRAÑAGA

Arbil Elkarte Sozialak festa giroan agurtuko du ikasturtea

Lagunarteko bi hitzordu izango dira egunotan: San Antonio eguneko ospakizuna eta ikasturte amaierako jaia

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Azken hilabeteetako jarduna amaitzeko, ospakizun berezi bat prestatu dute Arbil Elkarte Sozialeko ordezkariak. Ikasturte bukaerako jaia datorren ostegunean izango da, ekainaren 18an, Kultur Elkartean, eta, iragarri dutenez, umorea, musika eta lagunarteko giroa izango dira nagusi.

11:00etan ekingo diote egitarauari, musika instrumentaleko emanaldi batekin. Musika Eskolako adin nagusiko ikasleak izango dira protagonistak, eta euren lana erakutsiko dute. Ondoren, Edurne Agirrezabala umoristak *Ama baten bizipenak* bakarrik egingo du.

Kantu herrikoiekin jarraituko du egitarauak; tartean, *La bella Lola* eta Xabier Leteren *Habenera* piezak abestuko dituzte guztiek batera. Eta, ospakizuna

borobiltzeko, hamaiketako egingo dute.

Sasiolara irteera

Bihar, ekainak 13, gainera, San Antonio eguna ospatuko dute Sasiolako basilizan. Urteroko ohiturari jarraituz, bertara oinez joateko ibilaldia antolatu dute. Nolanahi ere, nahiago dutenek autobus zerbitzu berezia ere izango dute eskura.

Oinezkoak 10:30ean abiatuko dira, estalitako pasealekutik. Autobusean joatea aukeratzen dutenak, aldiz, 11:00etan aterako dira, geralekutik. Iragarri dutenez, festa amaitutakoan, 13:00etan izango da itzulerako autobusa.

Sasiolara iritsitakoan -11:30 aldera- elizkizun berezia egingo dute, eta, amaitzeko, salda eta txorizoa emango dizkiete bertaratutako guztiei.

ZALBURDI
Arakistain Plaza, 1
943 19 20 03 DEBA

IZENBE
Gosariak • Txikiteoa • Pintxoak
Itur kalea • 943 19 24 73 • DEBA

Zure produktu edo zerbitzuak ezagutarazi nahi?

Ipini publizitatea Barrena astekarian edota Barrena.eus webgunean

publi@barrena.eus | 688 76 96 57

Barrena
BATZEN GAITUENA

MM
HORTZ KLINIKA

Odontologoak
Nora Unzetabarrenetxea
Maitena Arrizabalaga

Gipuzkoa kalea 20, Zarautz
943 83 04 24 - 653 92 17 12

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAINITZA

Eibar lle-apaindegi baterako langilea behar da. Esperientzia eta ikasteko gogoia duen pertsona behar dugu. Interesatuak bidali curriculum: pe-luqueriaider3004@gmail.com.

Elgoibar Abuzturako eta irailerako langile bila gabilta, Abatebe landetxean. Garbiketarako eta gosari zein afariak zerbitzatzeko pertsona behar dugu. Soldatza gain, logela eta otorduak ere eskaintzen ditugu. Interesatuta bazaude, bidali curriculum: info@abatebe.com.

Elgoibar Egur Arte Tailerrak umeei tailerrak emateko hezitzaileak behar ditu, uztailaren 20tik 24ra bitartean. Hezkuntza edo arte alorretako ikasketak eskatzen dira, eta euskara maila altua. Aisialdian esperientzia izatea ere hartuko da kontuan. Curriculum bidali egurarte@gmail.com helbidera, ekainaren 10erako.

Deba-Itziar BARRENAK banatzailea behar du Deba-Itziarren BARRENA astekaria banatzeko. Interesatuok idatzi banaketa@barrena.eus-era.

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zainduko nituzke, astean zein asteburuetan. Ospitalean gauak pasatzeko prest nago. Beharrezkoak diren titulua eta esperientzia ditut. 632 29 26 62

Elgoibar. Lan bila nabil. Zerbitzuetan esperientzia handia. Bost hizkuntza menperatzen ditut. Berehala hasteko prest. Azken urteetan adinekoak zaintzen ibilia naiz. 634 19 62 36

Elgoibar. Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen. Etxeko, bulego eta tabernetako garbiketa lanetan jardungo nuke, baita leihoak garbitzen ere. Harategiko lanetan esperientzia dut. 632 70 89 54

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa eta urteetako esperientzia. Orduka lan egiteko prest nengoke. 602 49 05 65

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan eta jaiegunetan. Titulua daukat. 659 51 35 78

SALEROSKETAK

Eibar. Helduentzako bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. 637 58 78 11

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN HARTU

Elgoibar. Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarran. Epe luzerako. 602 30 40 08

KINTOAK

Elgoibar. 1956ko kintoen bazkaria ekainaren 13an. Kalegoen plazan batuko dira, 12:30ean, argazkia ateratzeko. Luntxa Ibai Ondon, eta ondoren, bazkaria Txarridunan. Interesatuak 75 euro ordaindu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan, izena eta bi abizen zehaztuta: ES15 3035 0007 20 0071 147446. Harremanetarako telefonoak: 696 45 50 24 (Antonio) / 630 28 63 63 (Begoña)

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06

Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



ELGOIBAR

Irati

Zorionak, Irati, zure laugarren urtebetetzean. Muxu potolo bat, etxeko guztion partez.



ELGOIBAR

Xune

Zorionak, Xune! Iritsi da zure laugarren urtebetetzea! Ondo-ondo pasa zure eguna. Muxu handi bat, etxeko partez.



SORALUZE

1956ko kinto bazkaria

1956an jaiotakoek elkarrekin bazkaldu genuen Batzokian. Bost urte barru elkartuko gara berriz. Bitartean, ondo bizi!



SORALUZE

Ramon eta Ezoz

Zorionak, Ramon eta Ezoz! Ekainean, 24 urte ezkondu zinetela; eta zuen arteko maitasunak aurrera jarraitzen du. Zorionak, bikote!



SORALUZE

1981eko kinto bazkaria

Maiatzean batu ginen 1981eko kintoak. Egun ederra pasatu genuen elkarrekin. Datorren urtean, berriz.



ELGOIBAR

Nora eta Malen

Zorionak, Nora eta Malen! Besarkada handi bat, familiako partez!

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali Whatsapez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurra@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
- Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 20 euro. Argazkiarekin: +5 euro.



Zorion agurrek saria dute
Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean
Galle-Tiak Fabrik-eko
produktu pertsonalizatuak
zozkatuko dira astero!

Sapidunak

Joan den asteko irabazlea:
HAIZEA ETXEBERRIA BEITIA

Aste honetako irabazlea:
XUNE ODRIA NOVA

Gozatul!

ELGOIBAR

X. urteurrena

Mikel de Pablo Cid

2026ko ekainaren 14an hil zen, 30 urte zituela

*Urrutitik sentitzen dugu
zure indarra, zure argia, itxaropena eta maitasuna aurrera jarraitzeko.
Beti gurekin, Mikel.*

Familiakoak eta lagunak



ELGOIBAR

III. urteurrena

Javi Arnedo Merino

2023ko ekainaren 10ean hil zen, 64 urte zituela.

<i>Jadanik hiru urte badirudi urrun hala ere zelako presente zaitugun</i>	<i>zure izate hura dugulako lagun zurekin ta zu gabe argi eta ilun.</i>
---	---

Erre Arte kuadrilla



ELGOIBAR

III. urteurrena

Javi Arnedo Merino

2023ko ekainaren 10ean hil zen, 64 urte zituela.

<i>Sarri aurkitzen zaitugu itsasoko olatueta, egunsentiko argitan jaiotako izpietan, Pirinio inguruko mendi magal, gailurretan familikoan, lagunak, biloben irribarreetan.</i>	<i>Eta aurkitzen zaitugu momentu txikienetan, zuk irri batekin soilik handitzen zenitunetan oraindik da indartsua sentipena erraiaetan, betiko biziko zara gure oroitzapenetan.</i>
--	---

Etxekoak




Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Iñar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

ETXE BERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 12

- **ERMUA Erakusketa:** Errekalde biziberritzeko ikasleen ideiak jasotzen dituzten maketak Ikasturte honetako Haurren Kontseilua osatzen duten Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako ikasleek Errekalde biziberritzeko ideiak jasotzen dituen erakusketa antolatuta dute. Udaletxeko beheko solairuan, 09:00etan hasita.
- **MALLABIA LGBTIQA+ liburu interesgunea** Udalak eta Berdintasun Kontseiluak antolatuta, ekainaren 15era arte. Udal liburutegian, 16:00etatik 19:00etara.
- **ELGOIBAR Odol ateratzea** Txanda hartzeko: *gotatanta.eus*. Whatsapez: 623 32 84 08. Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.
- **ITZIAR Ikasturte bukaerako eskolako**

jaialdia Itziarko plazan –eguraldi txarra bada, Zabalsoro frontoian–, 16:30ean.

- **MALLABIA 23. Biharko Izarrak txapelketa – finalak–** Malle Euskal pilota klubak antolatuta. Herriko frontoian, 17:00etan.
- **ERMUA 'Gu ere bagara!'** Ines Bermejo artistak eta Julen Nafarrate kazetariak bultzatutako sormen-lana da. Proiektu horren helburua Getxoko LGTBIQ+ nagusien kontatu gabeko istorioak jasotzea da, eta, aldi berean, ezagutzeko zer-nolakoak diren euren errealitatea eta bizipenak. Antolatzailea: Lagun Artea Emakumeen Topalekua, 18:00etan. Ekainaren 30era arte.
- **MENDARO Al-Anon eta Alateen alkoholikoen senide eta lagunen elkarten batzar informatiboa** Udaletxeko udalbatza-aretoan, 18:00etan.



ERMUA Ongaraiko jaiak

OSTIRALA 12: 18:00etan, haur-jolasak. 19:00etan, igel joko txapelketa. 19:00etan, Fourelada gaita taldea kalejiran. 20:45ean, Four Seasons musika taldea. 22:30ean, Elain musika taldea. 00:30ean, Euskelga herriko musika taldea.

LARUNBATA 13: 11:00etan, Latuna Bando txarangaren kalejira. 12:00etan, jaietako pregoia, adinekoei omenaldia... 13:00etan, Latuna Bando txarangaren emanaldia. 14:30ean, herri bazkaria. 14:45ean, *Libre* txotxongilo ikuskizuna. 17:30ean, Los Gavilanes mariatxiak. 19:45ean, 80/90 bertsio taldea: *Greziar*. 22:30ean, Begibide erromeria. 00:30ean, DJ Bixent. 01:45ean, txirridularitza erronka. 03:00etan, txokolate-jan herrikoia.



MENDARO Ikastolaren Eguna

LARUNBATA 13: Ikastolaren Eguna, Mendaro eskolak, Arno guraso elkarteak eta Udalak antolatuta. 09:00etan, areto futbol txapelketa, LH6ko ikasleak gurasoen kontra. 10:00etan, graduazio txapelen banaketa eta *photocall*-a. 11:00etan, pintxoak. 11:00etan, erakusketa eta jolasak. 13:30ean, bazkaria. 15:00etan, jolasak: bingoa, aukien jolasa... Mendaro Ikastolan.

- **SORALUZE Eskolarteko konbo topaketa** Soraluzeko Musika Eskolak antolatuta, 19:00etan.
- **DEBA Amaiak-Bat Kirol Elkartearen urteko batzarra** Lehenengo deialdia 19:00etarako izango da, eta bigarrena, 19:30erako. Kultur Elkartean.
- **ERMUA Dantza erakustaldia** Taupada Dantza eskolak antolatuta. Ermua Antzokia, 19:30ean.
- **DEBA Kontzertua: DJ Kol** Ondargain tabernan, 19:30ean.
- **MENDARO Daniel Juarez saxofoi-jotzailearen kontzertua** San Agustin aretoan, 21:30ean.
- **ELGOIBAR 'Sorotan Belegoan' kontzertua emango dute taldeko kide ohiek eta Elgoibarko Udal Musika Bandak** Kalegoen plazan, 22:30ean.
- **ERMUA Pintxo lehiaketa** Ekainaren 14ra arte, herriko ostalaritzak antolatuta.

LARUNBATA 13

- **SORALUZE VII. Errugbi Eguna** 180-210 bat ume elkartuko dira, 10-12 urtez azpikoak. 09:30ean, harrera. 10:00etatik 12:30era, partiduak. Ondoren, domina, opari

banaketa eta hirugarren denbora.

- **ELGOIBAR Mintxetako igerilekuen irekiera** 10:00etan, akuatloia, Elgoibar Igeriketa Taldeak antolatuta. 12:00etan, DJ Tita. 17:00etan, kaleko dantzak.
- **ELGOIBAR Urruzuno auzoko eguna** 10:00etan, pintura tailerra, Ane San Martinekin. 11:00etan, meza, auzoko elkartearen aurrean. Ondoren, mokadutxo. 15:00etan, bazkaria elkartean. Arratsaldean, umeentzako jolasak eta musika, DJ Imanolen eskutik. Festa amaitzeko, saski bat zozketatuko dute.
- **DEBA San Antonio eguneko ospakizuna** Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Mezaren ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte. Sasiolan, 11:00etan.
- **DEBA Kultur Elkarteko Bazkidearen Eguna** 12:00etan, Ostolaza Sariak banatzeko ekitaldia, Kultur Elkartean. 14:30ean, herri bazkaria, Arrano Elkartean. 16:30ean, NEU: *Bingo musikatu jostari bihurria*, Arrano Elkartean. 20:00etan, kontzertua: Skabidean, Kultur Elkarteko plazan.

- **ELGOIBAR Sanloren denboraldi amaierako festa** Sigman, 12:00etan.
- **DEBA Iturrian koruaren emanaldia** Herriko hainbat gunetan, 12:30ean.
- **DEBA Amaiak-Bat Kirol Elkartearen denboraldi amaierako bazkaria** Aldats pilotalekuan, 15:00etan.
- **DEBA Euskaltzaleon Martxara joateko autobusa** Euskalgintzaren Kontseiluak deituta. Paseo estalian, 14:30ean.
- **MALLABIA Zapatuero txikien programa: Sputnik Climbing-era irteera** Mallabiko Udalak antolatuta. Petrilletik, 15:45ean.
- **MALLABIA Zapatuero nagusien programa: Sopuerta Abenturara irteera** Mallabiko Udalak antolatuta. Petrilletik, 15:45ean.
- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Iraupena: ordubete. Bisitari kopuru mugatua: 39. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat: 10 euro–. Anes Arrinda pasealekuan –pantalana–, 16:30ean. Erreserbak egiteko: geoparkea.eus.
- **ITZIAR Ikasturte bukaerako euskal dantza jaialdia** Elizan, 18:00etan.

- **DEBA Ikasturte bukaerako jaialdia** Gure Kai Euskal Dantzari Taldeko kideen eta Deba Musikal udal musika eta dantza eskolako dantzarien eskutik. Foruen plazan, 19:30ean.

IGANDEA 14

- **ERMUA 32. kaleko pintura lehiaketa** Kalean zehar, 10:00etan.
- **ITZIAR Bisita gidatua: 'Lastur familiar'** Iraupena: ordu eta erdi. Bisitari kopuru mugatua: 30 lagun. Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak. Prezioa: 10 euro –12 urtetik beherakoentzat: 5 euro–. Lasturko San Nikolas plazan, 11:00etan. Erreserbak egiteko: geoparkea.eus.
- **ERMUA Debabarreneko Orfeoia 10. urteurreneko kontzertua.** Santiago elizan, 13:00etan.

ASTELEHENA 15

- **SORALUZE Tailerra: "Aurretiazko borondateak"** Nagusien Kontseiluak eta JendartEkinnek elkarlanean antolatuta. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.



SORALUZE Erromerixa Eguna Ezozin

LARUNBATA 13: 12:30ean, jan-edana. 13:00etan, plazako dantzak, Soraluzeko txistulariek eta Deba bailarako arrabariarik musikatuta. 15:00etan, bazkaria elizpean. 18:00etan, sagardo eta gazta dastaketa. 18:30ean, Erromeria Eingo taldearekin. 19:00etan, bola premioa. 19:30ean, larrain dantza, gaiteroek girotuta. Ezoziko plazan.



ELGOIBAR 'Tertuliak' programaren 25. urteurreneko jaia

OSTEGUNA 18: *Tertuliak* programan parte hartu duten herritar guztiak daude gonbidatuta. Tertuliakideek egindakoari balioa emango diote, eta egindakoagatik eskerrak emango dizkiete. Aita Agirre kulturgunean, 19:00etan.

- **DEBA Komunikazio-ohiturei eta digitalizazioari buruzko saio praktikoa, Telmo Lazkanorekin** Altxa Burua Deba-Itzar taldeak antolatuta. Gaztelekuan, 18:30ean.

ASTEARTEA 16

- **ELGOIBAR Biraka: B plana** ikasturte amaierako jaialdia. Herriko Antzokian, 20:00etan.
- **MENDARO Frontenis txapelketako partidua** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etan.
- **ERMUA Pintura erakusketa: 'Mugartea'** Astelehenetik ostiralera: 18:00etatik 20:00etara. Larunbat eta igandeetan: 12:00etatik 14:00etara. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan. Ekainaren 30era arte.

ASTEAZKENA 17

- **ERMUA Ermua TalentIC 2026 ekimena** Ermuko Udalak eta Izarra Fundazioak antolatuta. Izarra Centren, 10:00etan.
- **ELGOIBAR Hitzaldia: 'Osasuna eta uda'** Jubilatuen Biltokiak eta Osakidetzak antolatuta.

- Jubilatuen Biltokian, 16:00etan.
- **MENDARO Frontenis txapelketako partidua** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Biraka: B plana** ikasturte amaierako jaialdia. Herriko Antzokian, 20:00etan.

OSTEGUNA 18

- **ERMUA Ermua TalentIC 2026 ekimena** Ermuko Udalak eta Izarra Fundazioak antolatuta. Izarra Centren, 10:00etan.
- **DEBA Arbil Elkarte Sozialaren ikasturte amaierako festa** 11:00etatik aurrera, Arbil Elkartearen, kontzertu instrumentala, *Ama baten bizipenak* antzezlan, kantu herrikoiaren kantaldia eta luntxa.
- **MENDARO Helduen irakurketa kluba** Xabier Mendigurenen *Oso latza izan zen* liburua aztertuko dute. Asier Serrano idazleak gidatuko du saioa. Udal liburutegian, 17:30ean.
- **MENDARO Frontenis txapelketako partidua** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Biraka: B plana** ikasturte amaierako

jaialdia. Herriko Antzokian, 20:00etan.

OSTIRALA 19

- **DEBA Batukada ikastaroa** Euskal Herriko Batukada Feministen Sareko irakasleen eskutik. Izen-ematea: 637 55 29 48. Agirre jauregian, 18:00etan.
- **MENDARO Txirristaka Bertsopaper Lehiaketako sari banaketa ekitaldia** Mendaroko Udalak eta In Leike kultur elkarteak elkarlanean antolatuta. Ekitaldi berean, kartel lehiaketako saridunen berri ere emango dute. Udalbatza-aretoan, 18:00etan.
- **MALLABIA 'Beste zerbait' liburua aurkezteko bertso-saioa** Mallabiko Udalak eta Berdintasun Kontseiluak antolatuta. Gai-jartzailea: Danele Sarriugarte. Bertsolariak: Oihana Arana eta Miren Amuriza, Kontzejuzarran, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Pala Txapelketako finalak** Lagunak pilota eskolak antolatuta. Kalegoen plazan, 18:30ean. Euria egiten badu, ikastolako frontoian.
- **MALLABIA Goita auzoko jaiak** 19:00etan, jaien hasiera, txopoa jaso



DEBA 'Norbere mundu intimo' ikuskizuna

OSTIRALA 19: Mirari Martiarena umoristaren eta Asier Galarza bertsolariaren eskutik. Sarrerak salgai, 5 euroan, *labur.eus/norberemunduintimo* estekan. Kultur Elkartearen, 20:00etan.

- eta txapliguak botatzea. 21:30ean, bertso afaria: Sustrai Kolina eta Amets Arzallus. Ondoren, trikitilariak: Lander eta Mikel.
- **ERMUA Erromeria: 'El Rocio'** Andaluziar Kultur Etxean: 19:00etan, flamenko pintxo-potea. 22:30ean, Errozioko salbea.
- **ELGOIBAR Musika eskolako ikasleen kontzertua** Maalako parkean, 19:30ean.
- **ELGOIBAR Altzolako jaiak** 20:00etan, jaien hasierako ospakizuna. 22:30ean, Ivan DJa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- 12 BARIKUA **Garitaonandia / A. Zalduegi / I. Lecumberri**
 - 13 ZAPATUA **Arriola / A. Zalduegi / A. Alcalá / *M. Alves**
 - 14 DOMEKA **Arriola / A. Zalduegi / A. Alcalá**
 - 15 ASTELEHENA **Fernandez / L. Apraiz / I. Ugarte**
 - 16 MARTITZENA **Yudego / L. Apraiz / A.M. Baz**
 - 17 EGUAZTENA **Oruesagasti / L. Apraiz / M. Alves**
 - 18 EGUENA **Barrenetxea / L. Apraiz / I. Lecumberri**
 - 19 BARIKUA **Soto / Lasuen-Elezgaray / A. Alcalá**
- *09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

- Deba:** 09:00-13:45 / 16:30-19:30
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00
- Ermua-Mallabia:** 09:00-13:30 / 16:30-20:00
- Mutriku:** 09:00-13:30 / 16:45-20:00
- Itziarko botikina:** 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

- Egunez:** 09:00-22:00
- Gauetz:** 22:00-09:00
- Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
- Larunbatak:** Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
- Deba-Mutriku: 09:30-13:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
- Igandeak eta jaiegunak:** Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALÁ:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRAIZ:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

EIBAR

- COLISEO ANTZOKIA
- 'El día de la revelación'** Larunbata, 13: 16:30, 19:15, 22:30. Igandea, 14: 16:30, 20:00. Astelehena, 15: 19:30.
- 'Pioneras. Sólo querían jugar'** Larunbata, 13: 17:00, 19:45, 22:30. Igandea, 14: 17:00, 20:00. Astelehena, 15: 19:30.
- 'La silla'** Larunbata, 13: 19:45, 22:30. Igandea, 14: 20:00. Astelehena, 15: 19:30.

'Shrek. 25 aniversario'

Larunbata, 13: 17:00. Igandea, 14: 17:00.

DEBA

- KULTUR ELKARTEA
- 'Bugonia'** Igandea, 14: 19:00

SORALUZE

- PLAZA ZAHARRA
- 'Jones, batzuetan'** (Aire libreko zinea) Ostirala, 19: 22:30



El día de la revelación filma.

AZKEN BERBA

Errenditza



JOSUNE
ARAMENDI

Duela gutxi, lagun batekin berriketan ari nintzela, aitortu zidan borrokak aske egingo gaituela defendatu izan duela beti, irmoki. Orain, ordea, krisi existenzial bete-betean dagoelarik, iritziz aldatu du: "Josune, badakizu zer? Ni, benetan... errenditza egin nau aske". Gogoan dut Julio Sotok bertsoaldi batean bizitza osoa pertsonaia bat antzetzten pasatu duela kantatu zueneko. Antzetzpena etetea edo berrabiaraztea izan liteke borrokatzea edo errenditza. Sistemaren egitura prefabrikatuaren kontra jardun duenak onartu dezake berak ere, agian, harreman normatibo aspergarri bat izan nahiko lukeela traidore sentitu gabe. Guraso batek momentu batez azukrearen satanizazioari entzungor egin eta 3 urteko haurrak bertso saioaz gozatzeko utz diezaion, bat ez, bi izozki erostea arrazoizkoa da. Autoan L-a daraman neskek eskatu gabeko jarraibideak eman dizkion gizonari irribarre adeitsu bat eskaini diezaioke, nahiz eta barrutik ehun aldiz madarikatu. Nik neuk larrialdietan erdaraz artatu ninduen medikuari, aurpegi txarrik jarri gabe, erdaraz erantzun nion, besterik gabe. Batzuetan, errenditza da borrokan jarraitzeko modu bakarra.

BUKATZEKO

Plaentxi Eskolako 33 ikasleren lanak Guggenheim museoan izango dira ikusgai

EAEko 127 ikasleren lanekin osatutako erakusketa inauguratuko dute astelehenean

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Asteleheneetik aurrera, ekainak 15, Plaentxi Eskolako LH3ko 33 ikasleren lanak Bilboko Guggenheim museoan izango dira ikusgai. Espazioa langai, planeta handiak, txikiak eta ertainak, iretargia hainbat fasetan eta kohe-te handi bat erakutsiko dituzte.

Soraluzetarren lanekin batera, 6-12 urte bitarteko Ispasterko, Bilboko, Barakaldoko, Eltziegoko, eta Ozetako beste bost ikastetxetako 127 ikasleren lanek osatuko dute erakusketa. Astelehenean 10:30ean izango da inaugurazio-ekitaldia, eta irailaren 20ra arte izango da ikusgai, Guggenheimeko Hezkuntza-gunean. *Artea ikasbide* ekimenaren aurtengo emaitza da erakusketa hori.

New Yorketik

Artea ikasbide ekimena New Yorketik dator, Bilboko museoaren matrizea den New Yorkeko Guggenheim museotik. 70eko krisi ekonomikoaren testuinguruan, Artea eta halako "bigarren mailako" ikasgaiak kendu egin zituzten eskoletatik Ameriketako Estatu Batuetan. Hari buelta eman nahian, New Yorkeko Guggenheim museoak artea ikasgeletara eramateko ekimena abiatu zuen.

EAEan, Guggenheim museoak Bilbon zabaldu eta hurrengo urtetik aurrera gauza bera egin zuten. Museoko ordezkariak azaldu dutenez, Bilbokoa urrian inauguratu zuten, lehenean ez zuten astirik izan programa lantzeko; baina hurrengo urtean hasi, eta



'Artea ikasbide' ekimenaren parte hartzen ari den taldea, Guggenheimen, maiatzean. P.E.

dagoeneko 28 ikasturte daramatza abian. *Artea ikasbide* ekimenak zenbait artista euskaldunen partaidetza ere badu. Haiek arduratzen dira ikastetxetako lanketaz, aurretik: Manu Muniategiandikoetxea, Alejandra Bueno, Ibon Garagarza, Zalao Ipiña, Nerea Lekuona eta Ibon Saenz de Olazagoitia.

Museorako zein eskolarako

Plaentxi Eskolari dagokionez, ekimenaren parte hartzen duten lehen aldia da. Urrian eskaera egin, baitez jaso eta Guggenheim museoan izan ziren xehetasunak eskuratuko. Proiektuaren Soraluzeko gidaritza Manu Muniategiandikoetxea artista bergararraren esku laga, eta hura azaroan hasi zen eskolan lanean. 20 saio egin ditu.

Ikasgelan teoria eta patio handian praktika. Hala zatikatu dute proiektua. Muniategiandikoetxeak kontatu duenez, "artearen zabal-

tasuna" ikusteko, hainbat emakume artista izan dituzte ikasgai. Praktikarako, berriz, askotariko materialekin esperimentatu eta sortu dituzte artelanak; gehienak, berrerrabilitakoak, jasangarritasuna ere bada eta Guggenheimen filosofiaren parte. "Planetak ikasten zebiltzanez, horren ingurukoak hasi ginen lantzen: kohetea, planeta, iretargia... Guztia egin dugu material berriak erabiltzen. Adibidez, arrautza-kutxekin pasta bat egin genuen, neuk ere probatu barik neukan sistema batekin. Lehenengoan ez zen ondo irten, usteldu egin zitzaigun, kiratsa zerion... baina halakoekin guztiok ikasi dugu. Planetaren dimentsioak ikusi, iretargiaren faseak irudikatu, ortu bat egin, aretoaren maketa bat ere bai... Izan ere, Guggenheimerako bai, baina eskolarako bertarako ere sortu ditugu gauzak".




Patioan, kohetea lantzen, Manurekin. U.M.


San Mamesen edo Anoetan bezala


Manu Muniategiandikoetxeak 25 urte daramatza *Artea ikasbide*. Ekimenak ikasleei artearekin ematen dien lotura nabarmendu du. "Umeak hiru bider joaten dira museora; eta, gainera, euren lanak han erakusten dira. Neuk, adibidez, esaten diet hori dela futbolaria baldin bazara San Mamesen edo Anoetan jokatzeko bezala. Artearekin eta museoarekin inork ez daukan lotura bat ematen die, eta hori betirako da. Pentsa, esan ahal izatea: 'Nik Guggenheimen erakutsi nuen'. Sekulakoa da. Iazko datuen arabera, 1.300.000 pertsona pasatu ziren Guggenheimetik. Estatuan, zenbaki horiek Prado eta Reina Sofia museoek bakarrik dituzte.

Guggenheimen erakusteko ohorea ez ezik, programak museoekiko ezagutza ere ematen diela gaineratu du artistak: "Museora joaten dira erakusketak zelan aldatzen diren ikusteko, eta museoaren dinamika ezagutzeko. Esplikatzeko zaie Guggenheim dela New Yorkeko museo bat, handik ekartzen dituztela erakusketa eta artista gehienak, artista euskaldun gutxi daudela... Ikusteaz bat, asko ikasten dute".



Batu zaituz Tokikom Ligako Barrena taldera eta parte hartu asteroko zozketan!





4. asteko saritua: **Esther Bilbatua** (Eibar)

Saria: 40 euroko bonua Ermuko komertzio txikian gastatzeko